

IV.  
Ataun  
Zitergiari  
Beka



# ATAUNGO Kanta zaharrak

Hitzaurregilea: Joxemartin APALATEGI BEGIRISTAIN  
Euskal eta Atzeritar Kulturaren Antropologia eta Irakaslea

Maximo Aierbe Mujika



Ataungo  
Kanta  
Zaharrak

*Maximo Aierbe Mujika*

© 2003, Ataungo Udala

© Egilea: Maximo Aierbe Mujika

Hitzaurregilea: Joxemartin APALATEGI BEGIRISTAIN.  
Euskal eta Atzerritar Kulturaren Antropologoa eta Irakaslea.

Koordinazioa: Santi Etxeberria.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza, s.a.l. – Lasarte-Oria

ISBN.: 84-930785-4

Lege gordailua: SS-0598/03

## MAXIMO AIERBE MUJICA



Ataun San Gregorioko Lauztiturrieta base-  
rrian jaio zen 1950eko martxoaren 24ean.

Oinarrizko Hezkuntza Ataunen egin zuen eta  
Goierriko Lanbide Eskolan fresadore ofiziala  
ikasi zuen.

Legazpiko PESA lantegian zazpi urte egin zituen fresadore lanetan, arik eta  
lehenik esiliora eta gero kartzelara eraman zuten arte; guztira zortzi urte egin  
zituen herritik kanpo.

Ondoren, Lazkaoko TANTAI kooperatiban zurgintzan, ARGIA aldizkarian  
publizitate arduradun lanetan, EUSKALDUNON EGUNKARIAN ondasun bil-  
ketan koordinatze lanetan eta, gaur egun, Andurioko basozain lanetan diardu.

Hamairu urtekin hasita San Gregorio auzoko bikario zen Don Manuel Etxe-  
berriakin solfeo ikasketak egin ondoren, Donostiako Kontserbatorioan kitarra  
ikastaroak Ignacio Ubiriakin egin zituen eta kartzelako egonaldia aprobetxatuz,  
Harmonia ikasketak burutu zituen. Gaur egun Ataungo Eate Abesbatzako  
zuzendari da.

Bere lehen liburua, XAKE, Jon Esturo Loiolakin elkarlanean, 1985ean  
argitaratu zuen Debako "Irakaskuntza eta Kultur Aurrerapenaren Aldeko  
Elkarreak".

Eta Ataungo Udalak argitaratutako "Ataungo Kanta Zaharrak" liburu hau  
da bere bigarren liburua.



# A U R K I B I D E A

**HITZAURREA** ..... 9

**SARRERA** ..... 17

## **ESKE KANTAK:**

Santageda. .... 23

Otsailko ..... 45

San Nikolas. .... 47

San Nikolas txikie ..... 49

Aiñgeruak gera ..... 51

Artzai buru zuribi ..... 53

Goazen, goazen. .... 55

Diongraziaz ..... 57

Iruñ erantzun ..... 63

Berri onakiñ gera ..... 65

## **SEHASKA KANTAK:**

Loa, loa ..... 71

Lolo txikie ..... 75

Nere maittea lo ..... 77

Nere maitte politta ..... 79

## **HAUR KANTAK:**

Aitona kaskazuri ..... 83

Arre arre mandako ..... 85

Don don kikilikon ..... 87

Illargi Amandrea ..... 89

Tturrukuttukutona. .... 91

Txalo txalo txiñ ..... 93

Zanko Manko ..... 95

## **JOLAS KANTAK:**

Ala kiñkirriñera ..... 99

Amona gorri ..... 101

Emen ala emen ..... 103

Izkutaketan ..... 105

Piñ piñ serapiñ ..... 107

Zubiri zubiri. .... 109

## **TABERNA GIROKO KANTAK:**

Afaldurikan bapo bapo ..... 113

Atso zarraren atorra zarra ..... 115

## **EZTEI GIROKO KANTAK:**

Santa Luzietan ..... 121

## **ERROMANTZEAK:**

Astoa eta Otsoa ..... 125

## **KANTA NARRATIBOAK:**

Aldarreta garako ..... 131

Epistolea ..... 133

Zaldibiko Plazan ..... 135

## **ERESIAZKO KANTAK:**

Neskame sorgiñe ..... 139

## **ALEGIAZKO KANTAK:**

Leenagoko gizonak ogia nola irabazi zuen ..143

**AMAIERA** ..... 149

**BIBLIOGRAFIA** ..... 151

**NIRE BERRIEMAILEAK** ..... 153



## **Joxemartin APALATEGI BEGIRISTAIN**

**euskal eta atzeritar kulturen antropologo eta irakasle**

*anthropologist and professor of the Basque and the Foreign Cultures*

### **XX. MENDEKO ATAUNDARREN ETA ATAUN HERRIAREN BIZITZAREN OINARRIZKO BIOGRAFIA ETA HISTORIAREN LEKUKO SAKON BATZU BEREN AHOZKO HERRI KANTA ZAHARRETAN GARATUAK**

Ataungo Udalaren *Ataun aztergai* bekarekin gure ataundarkide eta lagun Maximo AIERBE MUJIKAK egungo ataundar batzuegandik ahozkotasunezko herri kanta batzue jaso eta pentagraman jarri ditu *Ataungo kanta zaharrak* liburu garrantzitsua eginez. Udalak eta egileak eskatuta liburuaren hitzaurrea egitera nihoa antropologiaren ikergai nagusienetzat jotzen dudan aldetik pixka bat analizatuz, hots, espezie humanoaren oinarria bere kide edo anthropos bakoitza da eta anthropos bakoitzak bere bizitza garatzeko beste anthropos eta unibertsoko izaki asko eta askoren beharra nahitaez daukela dioen metodologiazko printzipiotik. Metodologia hau lortzen asko lagundu didaten antropologoaren artean dago inglaterratar Edward TYLOR (London:1832-Sommerset:1917) antropologoa, zeinak bere 1871an argitaratutako liburu eraginkorrean, *Primitive culture* izenekoa, kultura mugatu zuen esanez “that whole complex” edo osotasun konplexu hori dela. ¿Zer dago espezie humanoko edozein kulturarentzat bere kide edo anthropos bakoitza baino osotasun konplexuagokorik denik, nola lehen, orain eta gero?. ¿Nor da edozein kulturaren egile nagusia bere anthropos bakoitza baino ezta?. Sakon sakoneraino ikerketaren bidez iritxitakoan bakarrik dago edozein historiako kulturako galdera nagusiei hobetoen erantzutea, eta bide hortatik bakarrik aurrera joanda daukagu espezie humanoarenei ere erantzutea, izan ere edozein orokorrera banakotatik zehar dago bakar bakarrik iristea. Esatebaterako: ¿noiz hasten da edozein kultura?, anthropos berri bat jaiotakoan; ¿noiz bukatzen da edozein kultura?, anthropos bat hiltzen denean; anthropos denok, ordea, unibertsoko beste izakien antzera, ez gara batera jaiotzen ez eta ere hiltzen, eta horregatik ere kulturak batzutan irauten dute eta bestatzutan desagertzen dira, eta abar eta abar kultura bakoitzaren beste hainbat ezaugarrikin gertatzen dela ehuntatik ehun egun ari naiz ezagutzen anthropos, euskaldun, unibertsokide eta antropologo naizen aldetik. Ameriketako Estatu Batuetako antropologo garaikide Conrad Phillip KOTTAKek bere 1991ko (lehen argitalpena 1974koa) *Anthropology. The exploration of human diversity* liburuko “CHAPTER 3. CULTURE”

delakoaren hasieran oso ongi eta egoki berrazpimarkatzen du TYLOrek 1871ko bere *Primitive Culture* liburuan XIX. mendearen bigarren erdian emandako kulturaren mugaketaren sekulako garrantzia, nik ere, beste behin eta besteak beste, neure egiten dudana eta Donostiako Euskal Herriko Unibertsitateko antropologiako lizentzia eta doktoradutzako nire ikasle unibertsitariei bereziki eta biziki behin eta berriz irakasten diedana orain hogeita bi urte ezkeroztik :

The idea of culture has long been basic to anthropology. More than a century ago, in his classic book *Primitive Culture*, British anthropologist Edward proposed that systems of human behavior and thought are not random. Rather, they obey natural laws and therefore can be studied scientifically. Tylor's definition of culture still offers a good overview of the subject matter of anthropology and is widely quoted.

"Culture ... is that complex whole which includes knowledge, belief, arts, morals, law, custom, and any other capabilities and habits acquired by man as a member of society" (1871/1958, p. 1). The crucial phrase here is "acquired by man as a member of society." Tylor's definition focuses on beliefs and behavior that people acquire not through biological heredity but by growing up in a particular society where they are exposed to a specific cultural tradition. Enculturation is the process by which a child learns his or her culture.

KOTTAK Conrad Philipp, 1991:36-b-1.

Ataundar eta sangregoriotar ikertzaile Maximo AIERBE MUJIKAK eman digu Ataungo kanta zaharren bilduma, horietako batzu lehenago beste ataundar ikertzaile batzuk jasotakoak, hala nola Joan ARIN antropologoak. Gainera beste ataundar ikertzaile batzuen bibliografiaz ere baliatu da Maximo bere ikerketa burutzerakoan, hala nola Isidro BAZTARRIKA ikertzailearenaz, Joanito DORRONSORO musikologoarenaz, Pili ARIN ikertzailearenaz. Bilduma horretako kanten sailkapen zerrendak ederki asko erakusten digu abestiaren bidez ataundar anthroposen eta herriaren bizitzaren ekintza nagusienetako asko eta zeintzu ziren XX mendean. Hau da, abesti edo kanta hauetan hitzez eta musikaz abeslarien eta abesti entzuleen biografiak eta herriaren historia daude eraikita. Horrela ataundar anthropos bakoitza Maximok bildudako kanta zaharron bidez bere autobiografiaren eta herriaren historiaren eraikuntza garatzen joanda. Horren lekuko eder askoetako bat ataundar eta sangregoriotar zen "Miel Galparsoro "Zapateroa" "-ri buruz Maximo AIERBE MUJIKAK dioena da "SANTAGEDA KOPLAK" zatia luze asko eraikitzerakoan ematen duelarik eta hemen ondora ekarriko dudana frogatzen ari naizen antropologiako tesiaren lekuko eder edertzat jotzen dudalako:

Itzul gaitezen berriro Ataunera. Errespetoz kantatzea eta koplaria bertsolari izaeraren lotura egin nahi nuke, eta horretarako Patxi Arratibelek kontatu zidan pasadizoa kontatuko dut. Pasadizo hau, esan beharrik ez dago, Ergone eta Sangregoriotarren arteko hika-mikaren ezaugarria dela: Alde batetik Ergondarrak eta bestetik Sangregoriotarrak basaurde ehizean zebiltzala, Ergondarrek basaurdea altxatu eta Sangregoriotarrak zebiltzan aldera joan omen zen eta hauek tiroz bota eta ixilean gorde omen zuten. Sangregoriotarren taldeko partaidetako bat Miel Galparsoro "Zapateeroa" izaki, Ergondarrak Sangregorion Santageda eskean zebiltzala, Estanko (garai hartan taberna zen) etxera iritsi eta bertako jendearen (eta tabernan zegoenarena ere bai, horien artean zapateroa) ize-nak koplatu ondoren, basaurdea nork hil zuen jakitun zirela adieraziz honela kantatu omen zion Ergondar koplariak gure Zapateroari:

"Orra bada ta zapateroak  
basaurdea dirudi."

Eta gure Zapateroak erronda bat hartzera gonbidatu zituen koplariaren ateraldi horregatik, eta jakina (Ai, ehiztariaren mingaina!, basaurdearen sekretua hain sekretu ere ez nonbait), Sangregoriotarren pekatutxoaren aitormena adieraziz.

AIERBE MUJIKA Maximo, *Ataungo kanta zaharrak*, 24-5.

Santa Agedatako herri kanta honek bere muin muinean hergondarren eta sangregoriotarren artean basurde baten hiltzearen gainean izandako gertakari astuna bezain ohikoaren egiazko herri epaiketa zoragarriki kontatzen digu. Epaituak sangregoriotar ehiztariak ziren beren ehiztarikidea zen Miel GALPARSORO Zapateroa aurretik zutela. Epailariak Santa Agedako hergondar herri kantariak, zihurrenik horien artean hegondar ehiztariak ere izango zirelarik, eta gutxienez hergondar ehiztarien bozeramaileak behintzat zirelarik. Epailaria Santa Ageda eta honen ordezkari zuzena Ataungo Sangregorio parrokiako elizatarrek lehen lehenik eta bertako apaizak urrutiago. Entzuleak edo Hergone, Sangregorio eta Ataun herri osoaren lekukoak Estanko tabernako familia eta baita une hartan han zeuden taberna bezeroak ere. Zapaterori abestutako Santa Agedako koplak hori herritar eliztarren justiziaren bide oinarritzotzat eta garai hartan beste hamaika euskal herritan bezala anthrpos eta herri epaitzat aldi berean jotzen dut lege antropologiatik analizatuta, non, besteak beste, herritar kantariak epaitzen dute beren herritar entzuleetako bat eleiza jurisdizio zuzenetik at eta aldi berean eleizak bere sinestunei ipinitako egutegiaren barnean, hots, Santa Ageda egunean. Egun zenbait lege ikertzailek eta irakaslek (Besteak beste, René DAVID, *l'Université d'Aix-Marseille*ko Zuzenbide eta Politika Zientzia Fakultateko ohorezko irakasle, eta Jhon E. C. BRIERLEY, Montrealgo *McGill University*ko Lege irakaslea, beren elkarlaneko 1985ko *Major legal systems int the world today* libururekin: “60. Public law and private law”, 81.) egindako mendeetako lege pribatuaren lehentasuna lege publikoarekiko agertzen dela Santa Agedako koplak honetan ere ikusten dut.

Bukatzeko azpimarkatu nahi dut XX. mendeko Europako eta mundu guztiko kultura antropologo nagusienetako bat izan zen euskal eta ataundar Joxemiel BARANDIARAN AIERBE antropologoak (Ataun Sangregorio:1889-Ataun Sangregorio:1991) mende hartako munduko antropologo nagusienetako asko eta askok bezalaxe defendatu zuen metodologiazko printzipio haundienetako bat, bere ustez etnografia egiterakoan etnografari batek beti derrigorrez kontutan hartu behar zutenetako, zera alegia “En etnología no es adecuadamente inteligible lo que no ha sido vivido”, eta nik orain gehitzen diot gaur egun ere niretzat halaxe dela eta etorkizunean baita halaxe izango dela uste dudala, hemen ondoan berak sortu eta zuzendutako *Anuario de Eusko-Folklore. Etnografía y paletnografía. 1969 – 1970. Tomo XXII.*, 1971an argitaratua, artikuluan “Proemio”, 7-11 orrialde bitartean agertu bezala hauxe hara hemen ondoan:

El volumen de las investigaciones y ensayos realizados y publicados es bastante considerable, pero de valor desigual: en el cuadro, generalmente rico en materiales y apreciaciones, no faltan deficiencias que, en adelante deberíamos subsanar. A este propósito me atrevo a señalar a continuación unos hechos.

A) Una parte de nuestros estudios y publicaciones está formada por descripciones estáticas y casi exclusivamente morfológicas de los hechos. Sus autores tomaron del conjunto cultural unos materiales o hechos y los presentaron como *datos puros*, imitando en esto al naturalista, que aísla y describe los hechos de su especialidad. Pero mientras éstos tienen por sí mismos una significa-

ción, aquéllos –los hechos culturales– son *signos que remiten* a unas mentalidades diferentes de la del observador. Es, pues, un error el desintegrarlos, el sustantivarlos y manipular con ellos como lo hiciera el naturalista en su laboratorio con los suyos. Al aislarlos de su contexto humano y objetivarlos, los privamos de sus auténtica realidad. No podemos aprehender la cultura con sólo observar los símbolos, sino viviendo la realidad a la que éstos se refieren, en contacto con los hombres vivientes que actúan en relación con el medio y con sus semejantes. En etnología no es adecuadamente inteligible lo que no ha sido vivido.

La descripción del objeto no deber ser, por lo tanto, puramente estática. Como ya lo dijo Maget, en una sociedad, en un pueblo, cada elemento interviene no sólo por sus características físicas –dimensiones, peso, volumen, color–, sino también porque tiene una significación, porque sugiere gestos, conductas, modos de vida, porque se halla humanizado, comporta una significación cultural. Su vista evoca gestos de quienes lo han fabricado y de los que lo utilizan. Es signo visible de un mundo de intenciones, de nociones y de ideas que los hombres cultivan en torno suyo<sup>(18)</sup>. Así, pues, en los estudios etnológicos, como en los históricos, no debemos perder de vista la primacia de lo invisible como criterio de interpretación.

BARANDIARAÁN José Miguel de, 1971: 9-3.

Beste ataundar emakumezko ikertzaile gazte birek, Jone ARIN eta Josune ARRUABARRENA, 1985ean Magisteritzan egin zuten tesinan, *Ataungo aho hizkuntzaren barne muinak*, bildu zituzten esaera mordotako batek, 28.ak hain zuzen, Joxemiel BARANDIARAN antropologoak etnografia egiteko beharrezkoa den metodologiazko printzipio berbera herri pentsamenduan ere iadanik dagoela erakusten digu:

- 28 - Jasotakoa

“URRUTIKO KANPAIAK OTS AUNDI”

Esanahia: urrutiko gauzak askotan benetan dena baino gehiago ematen duela.

ARIN Jone, ARRUABARRENA Josune, 1985: 40.

---

<sup>(18)</sup> MAGET, M. *Guide d'étude directe des comportements culturels*. (Paris, 1953).

## BIBLIOGRAFIA

APALATEGI BEGIRISTAIN Joxemartin

1987 *Introducción a la historia oral. Kontzaharrak (Cuentos viejos)*. Barcelona: Editorial Anthropos.

AIERBE MUJIKAK Maximo

2003 *Ataungo kanta zaharrak. ¿...? : ¿...?*.

ARIN Jone, ARRUABARRENA Josune

1985 *Ataungo aho hizkuntzaren barne muinak*. Magisteritzako tesina.

BARANDIARAN José Miguel de

1971 "Proemio", 7-11, in *Anuario de Eusko-Folklore. Etnografía y paletnografía. Tomo XXIII*. Seminario de Etnología de la Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi, R.S.V.A.P, Museo San Telmo. San Sebastián: Gráficas Izarra.

DAVID René, BRIERLEY Jhon E.

1985 *Major legal systems in the world today. An introduction to the comparative study of law*. London: STEVENS and SONS. Third English edition. First edition published in France in 1964 by Librairie DALLOZ, Paris.

KOTTAK Conrad Philipp

1991 *Anthropology. The exploration of human diversity*. New York: McGRAW-HILL, INC. Lehen argitalpena: 1974. Bosgarren argitalpena: 1991.

MAGET, M.

1953 *Guide d'étude directe des comportements culturels*. Paris: ¿...?

TYLOR Edward

1958 *Primitive culture*. New York: Harper TORCHBOOKS. Lehen argitalpena: 1871.

**ABjoxemartinek  
antropologo eta irakasle**



"Ezagutu dezagun gure benetako musika herrikoia, ez itxuratia, eta jakingo dugu gure herria maitatzen"

*"Conozcamos nuestra verdadera música popular, no la fingida, y sabremos amar a nuestro pueblo"*

(R. M. de Azkue)

"Euskalduna ezagutzeko, eta ondo ezagutzeko, bere kanta aztertu behar da"

*"Para conocer al vasco y conocerlo bien hay que examinar su canción"*

(Aita Donostia)

"Inola ere ez da hobeto ezagutuko euskalduna bere kantetatik baino"

*"Por ningún lado se conoce mejor al vasco como por sus canciones"*

(Charles Bordes)

J.M. Martin de Retanak gazteleraz jasotakoak (C.P.V., I tomoa, V. Or.)



## SARRERA

“Ataungo kanta zaharrak” bilduma honetako kanta gehienak erabat galduta ditugu usadioari dago-kionean, eta behin betirako desagertzeko arrisku bizia dute, baldin eta idatzita jartzen ez badira.

Gogoeta honek bultzatu ninduen duela bost-sei bat urte kanta horiek biltzeko lanari ekitea.

Egia esan, kantaren hitzen aldetik ez nuen ikusi arazo handiegirik, gehienak idatzita bait daude (eske kantak, batik bat), baina, kanta bat ez da hitza bakarrik, hitza bezain garrantzitsua da daraman doinua, eta hauxe zen, hain zuzen ere, benetan kezkatzen ninduen.

Kanta zahar hauen doinua galtzeak, kanta osoa galtzea suposatzen du. Kantaren hitzak gordetzen badira ere, doinurik gabe, urteak joan ahala, koplak, bertso edo poesia besterik ez izatera mugatuko dira. Beraz, kanta hauek doinu eta guzti idaztea bururatu zitzaidan.

“Ataungo kanta zaharrak” izenburua eta mamia ikusita norbaitek esan dezake kanta hauek Ataundik kanpora ere kantatu izan direla eta, agian, ez du arrazoi faltarik.

Lan hau egiteko erabili dudaren materialen artean hainbat eta hainbat herritako aipamen ugari aurkitu dut, eta egia da. Guk kantatzen ditugun zenbait koplak beste herrietan ere kantatu izan dituzte; koplak berberak, batzutan, eta oso antzekoak, besteetan.

Kontuan izan behar dugu kanta hauen sorrera, (eske kantak batik bat) Erdi Aroan kokatu behar dela adituen iritziz<sup>1</sup>, eta kontuan izatekoa da, baita ere, garai hartatik gaur arte izan duten lekuan lekuko eboluzioa; nola hitzei dagokionez, hala doinuari dagokionez. Nekez esan genezake, beraz, kanta hauek Ataunen sortutakoak direla; alderantzizkoa ere esaterik ez dugun bezalaxe.

Baina, zerk egiten du kanta bat herrikoa?

Era xume batez erantzunez, MENDEETAKO ERABILERAK!

Adibide gisa, derrigorrezkoa zait Azkueren “Cancionero Popular Vasco” bilduman, lehen tomoan, sarrera gisa Francisco Gascuerekin izandako hikamikaren zenbait pasarte aipatzea.

Nork esango luke “Uso xuria, errazu...” kanta ez dela geurea?

Azkuek (C.P.V., I tomoa, 5. eta 6. or.) dionez, kanta hau liburu frantses batean aurkitu omen zuen “Ah! vous dirai-je maman” izenburua zuelarik. Eta Azkuekin jarraituz (C.P.V., I tomoa, 7. or.) kanta honen doinua hurrei “Abecedarioa” erakusteko ere erabiltzen omen zuten Alemanian.

Nork hartu dio nori kanta herrikoi hau?

Hori zehatz-mehatz jakiterik ez dagoelakoan nago. Baina, gauza bat dago argi: beste Herriek galduta duten bitartean, guk oraindik bizi bizirik daukagula kanta herrikoi hau. Nork esan beraz, geure geurea ez dela?

---

<sup>1</sup> Manuel Lekuona, Egan 5-6, 12-15 or.

Gauzak horrela, “Uso xuria, errazu...” Euskal Kanta Herrikoia dela esan dezakegun bezala, bilduma honetan aurki ditzakegun kantak Ataungo kanta herrikoiak direla esateko ez dugu inongo zalantzarik izan behar.

Hori horrela delarik, gainera, gure kantez badute beste berezitasun bat: DOINUA!

Beste herrietako kantak hartzen baditugu, lehen esan bezala, kanta ugari aurkituko dugu kopla berberak edo beretsuak dituztenak, baina doinu desberdina erabiltzen dugu.

Adibide gisa “Berrionakin gera” hartuz, eske kanta hau gaur egun ere kantatzen dute Beasain Mendin<sup>3</sup>, eta Itsasondoarrek<sup>4</sup> oso bereak dituzte kopla hauek...; koplak beretsuak dira, baina, doinua guztiz desberdina da. Eta gauza bera gertatzen da gainontzeko kanteekin ere.

Beraz, kanta hauek gureak direla esateko arrazoi faltarik ez daukagula esango nuke.

Bestalde, bilduma honetan jaso ditudan kantez, behar bada, ez dute Ataundar guztion oneritzia jasoko. Bai kopletan eta bai doinuan zenbait aldaera (variante) soma bait daitezke Ataunen zehar.

Bi erizpidetan oinarritu dut lan hau bertsiio bakarrean egiteko (zenbait kasutan -aldiera nabarmen denean- egin dut konparaketa):

- 1) Kantaren hitzak ahalik eta osoenak izateaz gain aldaera egokienak edo erabilienak izatea; bereziki doinuari ondo egokituak izatea.
- 2) Kantaren doinua musikaren estetikan (melodiaren gardentasuna, erritmo, tonuera, etab.) oinarritua izatea.

Goian, lekuan lekuko eboluzioa aipatu dugu, eta hori seinale onaren adierazle da; kanta bizirik dagoenaren seinale, alegia. Eboluzio eta aldaketarik izan ez duten kantak museotan daudenak dira, soilik; antzinako kanta greziarrak esate baterako.

Ataun herri luze eta sakabanatua izanik, ez da harritzekoa lekuan lekuko eboluzio hori izatea gure kantez.

Hitzen aldetik aldaera dexente soma daiteke. Eske kantetan zenbait kopleto hitzen aldaerak soilik aurki ditzakegun bitartean, beste motako kantetan aldaera handiak soma daitezke; bilduma honetako “Piñ, piñ, Serapiñ” jolas kantaren bi bertsiioak lekuko. Bilduma honetan azaltzen ez dudaren gauza bera gertatzen da “Arre,arre mandako”, “San Nikolas”, etab. kantetan ere.

Doinuari dagokionez, kantaren bat edo beste kenduz, aldaerak oso tikiak dira. Hala ere, beste auzoko talderen bat “Santageda” kantatzen hasi orduko konturatzen omen ziren kantatzeko modu hura ez zela beraien auzokoena. Jakina, oso normala da garai hartako talde bakoitzak bere kantatzeko era izatea; kontuan izan urtean behin kantatzen zutela, erabat sakabanaturik eta kasu gehienetan elkarrekin inongo loturarik gabe gainera.

Doinuari dagozkion aldaera hauen funtsa koplariaren zenbait jiro berezitan datza, baina, baita zenbaiten kantatzeko modu eta erritmo zabarretan ere.

---

<sup>3</sup> Patxi Aranburu.

<sup>4</sup> Joxemiel Garmendia.

Konpara ditzagun “Goazen, goazen guztiok” kantaren bi erritmoak eta berehala konturatuko gara, nahiz eta nota berberak izan, lehenengoak erritmo motela, monotonoa duela eta, aldiz, bigarrenak erritmo alai, aidetsua duela.

Eboluzioaren gaiari jarraituz, aipamen berezia egin nahi nuke “Santageda” eta “Diongraziaz” kantetan jarri ditudan doinuei buruz.

Badakit batek baino gehiagok esango duela kanta horiek ez zirela horrela kantatzen, batik batik “Santageda” koplaren bigarren zatiko doinu aldaketari dagokionez. Norbaitek esan dezake doinu hori berria dela, edo neuk asmatua dela ere bai.

Baina gauza bat argitu nahi nuke: Lehenengo aldiz entzuten dugun guztia norberarentzat berri izateak ez du esan nahi “berri” hori “zaharra” izan ez daitekeenik. Bertsolaritzan gertatzen den moduan, doinu “berri” bat ateratzen denean doinu zaharretaz gogoratzen da jendea (Doñu berri ok baño obeer ittuun doñu zaarrak!).

Bat aipatzearen, Jon Sarasuak darabilen kopleto doinu berezi hori (“kriskitin”<sup>5</sup> izenez aurkitu dut gabon kanten artean) berak berreskuratu duen arren, ez da berak sortua. Bera jaiotzerako ere urte mordoxka bat izango zuen kanta horrek.

Berdin gertatzen da gure kantetan ere. Urteetako erabilerak kantari dakarkion eboluzioa “onuragarria” nahiz “kaltegarria” izan daiteke, eta gure “Santageda” kasuan dudarik ez da bigarrena izan dela. Eta, ondorioz, gure belarriek (nireak barne) kantaren lehen parteko doinua baizik ez dute entzun.

“Santageda” kantaren komentarioan aipatzen dudana bezala, Joxepa Zeberioi tartean tartean doinu hori erabiltzen zuen eta pentsatzekoa da ez zuela berak asmatu; bere aurrekoei entzun ziela. Isidro Baztarrikak ere “Jaunaren Deian” idatzitako pentagraman horrelaxe jaso du melodia hau eta nik, hau guztia kontuan izanik eta eboluzio “onuragarriaren” zale naizenez, bere osotasunean eraman dut melodia hau pentagramara. Eta “Diongraziaz” kantari buruz ere gauza bera esan genezake.

Hala ere, ez da hau gehien kezkatzen nauen auzia. Desadostasun guzti horiek oso gogokoak izango lirateke bilduma honetako kanta usadioari lotutako erabileraren ondorioz etorriko balira. Ea egia den!

Bukatu baino lehen xehetasun batzu ere egin nahi nituzke bilduma hau aurkezteko erari buruz.

Ortografiari dagokionez, kanten hitzak Ataundartasuna mantenduz aurkituko ditugu: “h”rik gabe, “ñ” eta “ll” mantenduz eta eguneroko hizkeran hain erabilia, baina, testu idatzietan geroz eta baztertuago dugun “tt” erabiliz.

Kanta sailkatzeko orduan zenbaitek melodiaren izaeraz baliaitutako sailkapena hobesten duen arren, kantategi gehienak (guztiak ez esatearren) kantaren hitzen kontestua nahiz erabilerak kontuan harturik sailkatuta daude, eta nik ere azken hau kontuan harturik egin dut.

Normalena alfabetozko ordena erabiltzea bada ere, hemen kanten garrantzia hartu dut kontuan eta ordena honetan aurkituko ditugu: ESKE KANTAK (10 kanta), SEHASKA KANTAK (4),

---

<sup>5</sup> Gabon Kantak, 27. or.

HAUR KANTAK (7), JOLAS KANTAK (6), TABERNA GIROKO KANTAK (2), EZTEI GIROKO KANTAK (1), ERROMANTZEAK (1), KANTA NARRATIBOAK (3), ERESIAZKO KANTAK (1) eta ALEGIAZKO KANTAK (1).

Bestalde, ESKE KANTAK saileko kantak ordena kronologikoa jarraituz aurkituko ditugu, “Santageda” kantaz hasi eta urte zahar egunean kantatu ohi den “Berrionakin gera” kantaz amaituz. Beste sailen barruko kantak alfabetozko ordena daramate.

Eta azkenik, eskerrik asko bilduma hau egitea posible egin duzuen guztioi. Ataungo Udalari, “Ataun Aztergai Beka” dela medio jaso dudan diru-laguntzagatik. Eta bilduma hau burutzen lagundu didazuen guztioi, eman didazuen laguntzagatik eta laguntzeko orduan azaldu duzuen borondate-agatik. Bilduma hau, idazten ari den honek gauzatu badu ere, ZUEN BILDUMA DA!

Eskerrik asko!

Ataunen, 1998ko abenduaren 15ean

Maximo Aierbe,

**ESKE KANTAK**



*Arbeldiko sendiak utzitako argazkiak*

## SANTAGEDA KOPLAK

“Santageda koplak” dugu, dudarik gabe, Ataungo kanta zaharren artean altxorrik preziatuena. Santageda bezpera gauetz (otsailak 4) eta Santageda gauetz (otsailak 5) kantatu izan dira.

Kopla ugari (128), benetan zoragarriak, eta melodia ederra izateaz gain, jendea koplatzeko oso modu berezia azaltzen dute; familiako kide guztiak koplutzen dira, nagusiarengandik hasi eta txikiarekin amaituz.

Usadio zahar hau arbasoek mendez-mende eta belaunaldiz-belaunandi gure garaietaraino ekarri dute, 1966. urtean Ataungo Ergone auzoan galdu zen arte.

Azken Santageda eskaleak Gomesaltzeko Joanito Dorronsoro, Jexus Arratibel, Patxi Arratibel eta hauen lagunak izan ziren. Nik neuk ezagutu dudan azken Santageda koplaria Patxi Arratibel izan da. Ospe handia izan zuten eta dute oraindik ere Aiatarrek. Gaur egun ere askori entzun diot koplak ondo kantatzeaz gain, kopla berriak sortu ere egiten zituztela “*Haak erdi bertsolarik itun!*”.

Koplei begirada bat ematen badiegu, laster konturatuko gara Erdi Aroan kokatu behar dela kopla hauen jatorria. Errege, zaldun, ezpata, dukat etab. hitzek argi adierazten diguten bezala.

Non sortua den esateko nahasketa gehiegitxo azaltzen da: Astigarraga, Errenteria, Oiartzun, Pasaia, Lezo, Goierri, Ataun, Iruña etab...

Argi dagoena zera da: kopla hauek oso zabalduak izan direla Euskal Herrian zehar.

Kopla hauek non sortuak diren ez dakigun arren, nori esker gorde ditugun aipatu beharrean nago.

Alde batetik Isidro Baztarrika (ikus “Jaunaren Deia” 78, 69-97 orr.) eta bereziki Joan Arin (Don Joan txikie). Honek bere garaian kopla hauek bildu eta idatzita jartzeak egin bait du posible gaur egun kopla hauek galdu gabe gure esku artean izatea.

Aurkezten dizuedan kopla bilduma hau osatzerakoan (128 kopla), 3 lan erabili ditut besteak beste: Aipatutako Isidro Baztarrikarena (119 kopla, eta bikain landutakoa), Gillermo Etxeberriak Ataunen jasotako bilduma eta Pedro Agirreren bilduma. Azken biak Isidorenak baino motzagoak dira. Orohar, kopla batzuk gehiago edo gutxiago, hitzen bariantek gora-behera, 3 bilduma hauek berdintsuak dira.

Hasieran aipatu dudan bezala, gure Santagedak, jendea koplatzeko oso modu berezia dauka.

Isidro Baztarrikak erabilitako eskuliburuetatik jasotako erritual hau derrigorrezkoa da hemen ere:

«1.- Koplutzen den etxean ez utzi inortxo ere koplatu gabe.

- 2.- Pertsona bakoitza dagokion ilaran edo lekuan koplatu behar da. Honela: lehenengo, Hasierako koplak; 2. Nagusi-etxeakoandreak; 3. Senar-emazte gazteak; 4. Alargunak; 5. Mutilak, zaharretik hasita; 6. Neskak, hauek ere zaharretik gazteenera; 7. Morroi-neskameak; 8. Bukaerako koplak (Gai honetan deskuidoak gogoan estu hartu ohi dira)

3.- Pertsona bat koplatu eta ondorengoak koplutzen hasten garen bakoitzean zera esan ohi da:

orain aurrera goazen  
(izena) ori koplutzen.

4.- Koplariak kopla bat baino gehiago kanta diezazkioke pertsona bakoitzari, baina ahalik eta hoberen aukeratuak izan behar dira. “Dohaia duenak kopla berria asmatu dezake (somatu deike) baina ez inori mina emateko eran”.»

J.D., 78, 72or.

Laugarren puntuko azken atalari dagokionez, argi dago koplatzeko orduan Ataunen errespetuz koplaztea eskatzen dela. Baina badirudi zenbait herritan hori ez dela horrela gertatzen. Esaterako, Joxe Goikoetxea “Armuño”-k honako hau kontatu zidan: Azpeitiako koadrila bat Uztapide eta Lazkao Txiki koplari zituztela, Mandubiko baserri batean morroi zegoen “Kaskota” zelakoari txanda iritxi zitzaionean, honela kantatu omen zion Uztapidek:

“Etxe onetan bizi omen da  
Azpeitiako “Kaskota”,  
onek ez digu ezer emango  
berak bear du asko ta.”

Era honetako aipamen gehiago ere bada. Azkueren “Cancionero Popular Vasco” bigarren tomoan, 1127 orr. 976.-SANTA AGATA ANDERE kantan ikus daitekeenez, limosnarik ematen ez zutenei honako hau kantatu ohi zieten:

“Goazen goazen emendik,  
emen ez duk xingarrik, (urdairik)  
etxe untako gazitegian  
saguak umeak egin tik.”

Edo beste hau:

“Or goian goian lainoa,  
laino azpian otsoa,  
arkakusoak itoko al du  
etxe ontako atsoa.”

Azkueren CPV, 1122 orr. 2. Tomoa.

Aipamen gehiago ere bada Azkueren lan bikain horretan, baina denak aipatzeak luze joko ligu-keenez utz dezagun goian aipaturikoa, adibide gisa nahiko argigarria bait da nire ustez.

Itzul gaitezen berriro Atauna. Errespetoz kantatzea eta koplaria bertsolari izaeraren lotura egin nahi nuke, eta horretarako Patxi Arratibelek kontatu zidan pasadizoa kontatuko dut. Pasadizo hau, esan beharrik ez dago, Ergone eta Sangregoriotarren arteko hika-mikaren ezaugarria dela: Alde

batetik Ergondarrak eta bestetik Sangregoriotarrak basaurde ehizean zebiltzala, Ergondarrek basaurdea altxatu eta Sangregoriotarrak zebiltzan aldera joan omen zen eta hauek tiroz bota eta ixilean gorde omen zuten. Sangregoriotarren taldeko partaideetako bat Miel Galparsoro “Zapateroa” izaki, Ergondarrak Sangregorion Santageda eskean zebiltzala, Estanko (garai hartan taberna zen) etxera iritsi eta bertako jendearen (eta tabernan zegoenarena ere bai, horien artean zapateroa) izenak koplatu ondoren, basaurdea nork hil zuen jakitun zirela adieraziz honela kantatu omen zion Ergondar koplariak gure Zapateroari:

“Orra bada ta zapateroak  
basaurdea dirudi.”

Eta gure Zapateroak erronda bat hartzera gonbidatu zituen koplariaren ateraldi horregatik, eta jakina (Ai, ehiztariaren mingaina!, basaurdearen sekretua hain sekretu ere ez nonbait), Sangregoriotarren pekatutxoaren aitormena adieraziz.

Pasadizoak pasadizo, koplaren egitura eta musika aztertzen hasi aurretik zenbait xehetasun egin nahi nituzke:

### **SANTAGEDA ala SANTA IAGEDA**

Hegoaldean gaztelaniazko SANTA AGEDA hartu dugu euskaraz erabiltzeko, Iparraldean latinezko AGATA baldin badute ere. Beraz, guk SANTAGEDA koplak esatea litzateke egokiena. Baina, zer da orduan SANTA IAGEDA? Hitz gutxitan esateko, kantatzeko garaian bi bokalen artean sartu ohi zen (i) tartekatua daraman SANTA (I) AGEDA.

Kanta zaharren edozein liburu hartzen badugu, berehala konturatuko gara edozein kanta hartuta delako (i) hori sarritan azaltzen dela.

Ez dugu urrutira joan beharrik. Gure Santageda, Diongraziaz (Agur, Agur), Berrionakin gera, e.a., ikusi besterik ez dugu.

Santageda kopletan:

5.- Otsabillaren Laugarrena da  
Santa(i) Ageda bezpera.

6., 7. eta 8.ean ere berdin azaltzen da.

Diongraziaz kopletan:

4.- Adan da(i) Ebak egin zutian  
paradisuan pekatu.

6.- Eba(i) ederra...

9.- Eba(i) ederra...

Berrionakin gera kopletan:

- 1.-...  
aiñgeruak zerutik  
digute(i) ekarri.
  
- 2.- ...  
Añ dan zoragarria  
imajiña(i) ori.

Ondorioz, esan genezake, hitz bat bokalez bukatu eta hurrengo bokalez hasten denean sartu ohi dela dalako (i) hori. Beti ere bokal gogorak elkartzean eta bereziki bi bokal berdinen loturetan. Azkuek (CPV, 1.130.orr.) dioenez, bi bokal berdinen kakofonia ekiditzeko egiten omen da. Baina, liburu berean hurrengo orrialdean (1.131) ikus daiteke ez dela bokal berdinen artekoa bakarrik. Altsasun jasotako koplak horietan bokal biguina eta gogorra elkartzean ere azaltzen da: “artu(i) ezker”, “artu(i) artean” besteak beste. Baina azken kasu hau ez da sarritan agertzen.

Dena den ez dago argi delako (i) horren zergatia; nik esango nuke kantariaren edertzeko joeraren ondorioa besterik ez dela.

Bestalde, sarritan entzun ditugu Nafarroako joteroak hasierako bokalari aurretik (i) jartzen: “Un buen tafallés...” kantatu beharrean “(Y) un buen tafallés...” kantatzen.

Santageda kopletan ere koplaria sarritan hasten zen “Alabatue bedeinkatue...” beharrean, “(i)Alabatue bedeinkatue...” kantatzen.

Beraz, norbaitek argibide gehiago eman bitartean, bere horretan utziko dugu auzi hau.

Eta goazen orain koplen egitura eta doinua aztertzeraz.

Bi motatako egitura azaltzen zaigu:

A) 1.- Alabatue bedeinkatue	10
Sakramentu santue.	8 A
Pekatuaren mañtxarik gabe	10
Jesus da kontzebittue.	8 A
B) 8.- Or goien dago ermita	8 A
Santa(i) Ageda deritza.	8 A
Ango segore serbitzarientzat	10
Limosna biltzen gabiltza.	8 A

Lehenengoa eta zortzigarrena hartu ditut eredutzat, eta koplak irakurri edo kantatu ahala konturatu gara koplak bakoitza zein egituretako den. Egitura hauen barruan sartzen ez diren koplak ere azaltzen zaizkigu, 5. koplak e.a., baina doinuari begira A) egituretan sartuko ditugu, doinuaren errepi-kapena besterik ez da eta.

Doinuari dagokionez A) egiturako koplek honako doinu hau dute:



A-la-ba - tu - e be-deiñ-ka - tu - e sa-kra - ra-men-tu san-tu -



e Pe-ka-tu - a - ren mañ-txa-rik ga - be Je-sus da kont-ze-bi-ttu -



e

Hala ere, esan behar da, koplariak lehenengo bost konpasetako doinua soilik erabiltzen zutela, eta tartean behin kantatzen zuten pentagramako azken bost konpasetako doinua. Hori da, behinik behin, nik atera dudan ondorioa. Behin, Joxe Arratibel fraile benediktarrarekin bere jaiotetxean solasean ari ginela, Joxepa Zeberio jarri genuen kantatzen, eta bera konturatu gabe, tartean behin, azken bost konpasetako doinuaz kantatzen zuten. Nola ez, berehala galdetu nion ea zergatik aldatzen zuten doinuaz, baina berak ez zekien aldaketa horren zergatia.

Dena den, koplak hauen doinua A) egiturari dagokionez, pentagraman azaltzen den bezala kantatzea proposatuko nuke; alde batetik, melodia aberasten du, eta bestetik, horrenbeste koplak doinu berean kantatzeak sortzen duen monotonia, apur bat bederen, arindu egiten du.

B) egiturako koplek berriz, honako doinu hau dute:



Orgoien da - go er-mi - tta Santa(i) A-ge-da de-ri -



tza An-go se - go - re ser-bi-tza-rien - tzat li-mos-na bill-tzen ga-bill -



tza

Ikus dezakegunez, hirugarren konpasean gertatzen da aldaketa, beste guztia berdina da.

Kantatzeko erari dagokionez, lehenik koplari-bakarlariak kantatzen zuen eta ondoren berarekin zebiltzan lagunak, koplariak kantatutako koplak bera berdin berdin erantzuten zuten. Honela dio bigarren koplak:

Astigarraga, Erreterie,  
irugarrena Oiartzun.  
Dios te salbe, nere lagunak,  
altu eta berdiñ erantzun.

Xehetasun pare bat koplekin hasi aurretik:

Lehenago esan dugu etxeko pertsona guztiak koplatu behar direla, beraz, horretarako pare bat lagun aurrez joaten ziren datu guztiak hartzera; nagusia, etxekoandrea, seme, alaba, e.a. bakoitzaren izena hartuaz; gero izenez koplatu behar bait ziren.

Bestalde, zer biltzen ote zuten Santageda eskean zebiltzanek?

Isidro Baztarrikak (J.D. 78, 73.orr), Joan Arinen bildumetatik jasotako xehetasun honek zerbait argituko digu:

*“El año 1894 seis mozos de Arinberria durante dos noches que anduvieron de casa en casa cantando coplas de Santa Agueda recogieron seis cestas grandes de pan (sei lepa-saski), 18 docenas de huevos, abundante tocino y chorizo y cuarenta pesetas en metálico. En algunas casas les dieron un pan de kilo y una docena de huevos.”*

Don Joan txikirengandik jasotako beste hau ere oso interesgarria da:

*“El año 1702 la villa prohíbe salgan por Santa Agueda y al tiempo de bodas ninguna persona a pedir limosna ni cantar pena de 1.000 marabedis. por cada vez y 15 días de cárcel y además se procederá por inobedientes a este mandato.”*

Eta azkenik, ausartuko ote da inor usuario zahar hau berriro etxez-etxe eramaten? Animo eta aurrera esanaz, hona hemen Ataungo Santageda zaharraren koplak:

## HASIERA

1. Alabatue, bedeiñkatue  
Sakramentu santue  
Pekatuaren mañtxarik gabe  
Jesus da kontzebiltue.
2. Astigarraga, Erreterie,  
Irugarrena Oiartzun;  
Dios te salbe, nere lagunak,  
Altu ta berdiñ erantzun.

3. Dios te salbe, ongi etorri,  
Gau on Jaiñkoak diela,  
Gau on Jaiñkoak diela eta  
Biar egun on diela.
  4. Sukaldeetan eder dirade  
Apal berriak letonez;  
Nagusi Jauna, esan bezaigu  
Asiko geran edo ez
  5. Otsabillaren laugarrena da  
Santa(i) Ageda bezpera,  
Nere jendeak ez ikaratu  
Kristau gaiztoak ez gera;  
Auzotako galaiok gatoz  
Gaur zuek kontsolatzera.
  6. Santa(i) Ageda andrea,  
Birjiñearen amea,  
Birjiñearen amea da ta  
Bigarren ezelentea
  7. Martirioa martirizutzen  
Irukiaren fedea,  
Ark arekiñtze irabazi zun  
Zeru altuko sillea;  
Zeru altuko sillea eta  
Mundu onetan lorea.
  8. Or goien dago ermitta,  
Santa(i) Ageda deritza,  
Ango segore serbitzarientzat  
Limosna biltzen gabiltza.
  9. Santa(i) Ageda, Santa(i) Ageda  
Santa(i) Ageda gaur degu,  
Santa(i) Ageda gaur degu eta  
Artxek bialdu gaittu gu;  
Kopela zaitzagula zu,  
Ongi ar gaitzazula gu.
  10. Uso txuriak zabaltzen dittu  
Goizen goizetik egoak;  
Etxe santu onek bedeiñkatuak  
Ateak eta leioak.
  11. Gazte jendea pesta egunean  
Plazara gera juntatu,  
Plazara gera juntatu eta  
Andik etxera pentsatu  
Etxe ontako jende noblea  
Bear genduke koplatu.
  12. Piparrarekiñ espezi  
Baionan degu erosi;  
Nagusiari eskatzen diogu  
Koplaetako lizentzi.
  13. Donostiako zitudadean  
Iru leengusu barbero;  
Lizentziarik egon ezpalitz  
Esango zigun lenago.
- NAGUSIARI**
14. Asiko banaiz asi nadilla  
Nagusi ori koplutzen;  
Zaldie dago sillatzen,  
Lau oiñtzoetan perratzen.
  15. Etxe ontako nagusi jauna  
Zaldiz da eleizaratzen  
Zaldiz da eleizaratzen eta  
Zillarrez oferendatzen.
  16. Andik etxera datorrenean  
Urre sillan da esertzen  
Txokolatea artu artean  
Andikan ez da jeikitzen.
  17. Nagusi jauna berori,  
Kortean ez tala agiri,  
Bikorra sarri botatzen zaio  
Beorren eskuko pirmari.
  18. Eskuan eder bastoia  
Illean seda kordioa;  
Nagusi jaunak bere eskutik  
Botako digu dobroia.

### **ETXEKOANDREARI**

19. Baratzan eder txermena  
Ondotik gora lerdena;  
Etxekoandrea kopla dezagun  
Nagusiaren urrena.
20. Etxekoandrea zabala,  
Leku oneko alaba,  
Bidean gatoz informaturik  
Limosnerea zerala;  
Etxekoandrea gugana  
Argie eskuan duala.
21. Esku batean ogi aundie,  
Bestean lukaiñka parea,  
Orei guztiei gutxi deitzola  
Buruan urdai alde;  
Mantala ere goien dakar da  
Antxe dozena arrautzea.
22. Urdaiazpikoa ona da baiñan  
Solomoa da gozoa,  
Puskarik kentzen arittu gabe  
Ekarri zazu osoa.
23. Lukaiñkatxo ximurra,  
Onak falta du laguna,  
Orri laguna azaltzerako  
Zabalduko da eguna.
24. Zakua ere aundia degu,  
Aittona batek egiña,  
Au betetzeko asko bear du  
Lukaiñka edo sesiña.
25. Guretzat ere zerbait bada ta  
Beretzat berriz ondrea,  
Etxe ontako etxekoandrea  
Txit emakume noblea.
26. Udaberrian zeña dan eder  
Lino txikiaren azie;  
Etxe ontako etxekoandreak  
Guztiontzat badu grazie.

27. Zinta ederra petxeran  
Ordena ona etxean  
Etxekoandreak gustoa badu  
Pasea dezake kotxean.

### **NAGUSI GAZTEARI**

28. Usoak dira kotara,  
Nere begiak lotara;  
Nausi gaztea, oraintxe goaz  
Beroren koplaetara.
29. Ostri altuan izarra,  
Errekaldean lizarra,  
Etxe ontako nausi gazteak  
Urre gorritz du bizarra  
Orra bada ta botako digu  
Bost pesetako zillarra.
30. Urre gorritz du bizarra eta  
Zillar zabalez espalda,  
Berori beziñ gizon presturik  
Erri onetan ez al da.
31. Soroan eder goldea,  
Soiñean kapa morea;  
Etxe ontako nausi gaztea  
Ondo gizontxo noblea.
32. Errekatxoan arri limuri,  
Zaldi urdiñek irari;  
Orra bada ta (izena) ori  
Zazpi errien gidari
33. Baratzan eder azea,  
Gizon onaren trazea;  
Zerori ere zerbait bazera  
Noblea dezu andrea.

34. Bestela gizon ona dalarik  
Jekerea du nagie,  
Baldiñ erregek jakitten badu  
Orren tretaren berrie,  
Sarri batean bialduko lioke  
Ezpatarekin zaldie.
35. Or goien dago elorri  
Ondoan falta erorri  
Etxe ontako nausi gazteak  
Errejidore dirudi.
36. Nagusi gazte ori zaldune,  
Urrezko ezpatadune,  
Semea eitteko omen daukezu  
Emazte parpalladune.
37. Txorie dago sasian,  
Birigarroa esian;  
Zu beziñ gizon presturik ezta  
Eguzkiaren azpian.

#### **ANDRE GAZTEARI:**

38. Sentitzen zaittut sentitzen  
Nola zabilten jeikitzen,  
Beroren oiñtxo politten otsa  
Sala berriñ det aditzen.
39. Eder intxoren kordena,  
Alaxen degu ordena;  
Andre gaztea koplá dezagun  
Nausi gaztearen urrena.
40. Etxekoandre txit ona,  
Zere gauzaren doi ona,  
Pazko goizean jantziko ittuzu  
Zere soñean bi gona.
41. Txuri nabarra azpiko,  
Gorri ederra gaiñeko,  
Andrea, zure parerik ezta  
Plazea ondratutzeko

42. Eder basoan ezpala,  
Nik eziñ esan bestela;  
Zure besoan lo egiñ leike  
Paradisuan bezela.
43. Mai aundietan zeña dan eder  
Tenedore ta kutxara;  
Orra bada ta (izena) orrek  
Badauka baten patxara.
44. Etxetik asi eta plazara  
Arriz daukazu galtzara,  
(izena) ori jai aundietan  
Ateratzen da dantzara.
45. Gonea dauka josteko,  
Jai aundietan jazteko,  
Zazpi kriada balio dittu  
Etxea gobernatzeko.

#### **GIZONEZKO ALARGUNARI**

Oraiñ aurrera goazen  
(izena) ori kopláten.

46. Elizan eder mantue  
Seda piñez forratue;  
Orra bada ta (izena) ori  
Alargun bedeiñkatue.
47. Alargun orren etxean  
Santuak daude oltzean;  
Guztiak lagun izango ittuzu  
Eriotzako trantzean

#### **EMAKUMEZKO ALARGUNARI**

Oraiñ aurrera goazen  
(izena) ori kopláten.

48. Umildadean, karidadean  
Bizi zerade munduan,  
Leku onean jarriko zera  
Paradisuko koruan;  
Paradisuko koruan eta  
Birjiña Amaren ondoan.

49. Armarioan sague,  
Kontrarioa katue;  
Orra bada ta (izena) ori  
Alargun bedeiñkatue.
50. Basoan eder elorri,  
Ondoan jota erori ,  
Orra bada ta (izena) orrek  
Ama Birjiña dirudi.
51. Etxaburuan sagarra,  
Ezpaliñ bada zakarra;  
Orra badata (izena) hori  
Ogi ebalte zabala.
52. Or goien dago errota,  
Iriñe dauka igota;  
Orra bada ta (izena) ori  
Birjiña Amaren debota.
53. Etxaburuan goldea,  
Aren gañean belea;  
Orra bada ta (izena) ori  
Emakume txit noblea,  
Pobreak ere egitten dute  
Nun zeran zure galdea.
- GAZTE JENDEARI**
54. Iruñek badu zerkea,  
Zerka barruan dendea;  
Merezi du ta koplaz dezagun  
Emengo gazte jendea.
55. Sasirik sasi birigarroa,  
Pagadietan usoa;  
Etxe ontako gazte jendeak  
Aurten badute jaso.
- MUTILEI**
56. Ametz burutxo betea,  
Aurten du bere urtea;  
Orain aurrera esango degu  
(izena) orren parte.
57. Zapata eder oñean,  
Kapa berrie soñean  
Bosteun zezen izango dira  
zu ezkontzen zeranean.
58. Zazpi danboliñ zortzi kitarra,  
Musikeroak amabi,  
Oien danaren dantza aurretik  
Ibilliko da berori.
59. Preskorik zaude preskorik  
Ez al dezu ezkon asmorik,  
Goierri ontan eztezt barrunda  
Olako maiorazgorik.
60. Or goien dago itturri,  
Urre txorrotik erori;  
Orra bada ta (izena) orrek  
Amalau urte txintzarri.
61. Amalau urte txintzarrekin  
Zazpi damaren eguzki,  
Oiek guztiak ala izanik  
Geiago dattu merezi.
62. Etxaburuan babea,  
Erdie leka bagea;  
Orra bada ta (izena) ori  
Ezta mutille bagea.
63. (izena) ori zaldune  
Jesukristoren lagune  
Ola bakarrik gaizki zaude ta  
Bear zenduke lagune.
64. Jira batera, jira bestera  
Nundinai zure famea,  
Bost milla dukat malen dittula  
Emen dakarzu andrea.
65. Aizearekin dantzari dabill  
Mendi altuan lañoa;  
Zure emazte egitten dana  
Zori onean jaioa.

66. Eskuak eder eskuko  
Jipon zurie soñeko;  
Orra bada ta (izena) ori  
Ona da lagun arteko.
67. Ona da lagun arteko eta  
Are area korteko,  
Zazpi zalduntxo balio ditte  
Dama bat kortejatzeko.
68. Eskill-ondoan astoa,  
Botatzen zaio lastoa;  
Dama gazte bi engañatzeko  
Etzera mutill gaiztoa.
69. Sibilli eta Granada,  
Cataluñian gerra da,  
Aien artean pakea eitteko  
(izena) ori ona da.
70. Sala berrian jartzen danean  
Amabi dontzellarekiñ,  
Aittak onena eskojitturik  
Geldittuko da berakiñ.
71. Gerrian eder ezpata,  
Etzaittezela espanta,  
Jaun zerukoak gorderik dauka  
Zuretzat neskatz galanta.
72. Basoan eder aiena,  
Beien artean zezena;  
Orra bada ta (izena) ori  
Urre lirañtxo txuxena.
73. Zelaian eder ardie,  
Beltzen artean zurie;  
Orra bada ta (izena) ori  
Lagunen ondragarrie.
74. Etxaburuan otea,  
Auntzak jan dio puntea;  
(izena) orren maitteak  
Bost milla dukat dotea.
75. Basoan eder gorosti  
Auntzak argana kutesi;  
Orra bada ta (izena) orrek  
Dama eder bat merezi.
76. Udaberrian zeña dan eder  
Ostoz jantzirik basoa;  
Zure emazte egitten dana  
Zori onean jaioa.
77. Illaren bian Kandelario,  
Ogei ta lauean San Joan;  
Bear duana etortzen bada  
A ze mutilla dagoan.
78. Keriza txiki betea,  
Aurten du bere urtea;  
Merezi du ta koplaz dezagun  
(izena) orren partea.
79. Pagok adarrak zabalak ditte  
Usoak umeak an ditte;  
Orra bada ta (izena) orrek  
Adiskideak baditute.
80. Errekaldean igela,  
Preskoa dauka gibela;  
Zu bezalako galai gazterik  
Berri da errian eztala.
81. Gure errian ardo merke,  
Kuartilloa zazpian,  
Zu bezelako mutillik ezta  
Oskarbiaren azpian.
82. Ekaitz gogorra pasatu dezu,  
Ekaitz ondoan biguñe,  
(izena) ori fama daukezu  
Zerala artzai bikaiñe.
- NESKEI**
83. Sazerdoteak garbitzen ditte  
Meza emateko eskuak;  
Dama gazteak esango ittugu  
Zuen merezimentuak.

84. Illargiaren argitan  
Artu gaittuzte begitan;  
Erregaloak bildu leizke  
Dama gazte oien bisitan.
85. Arantza beltzak ostoz txikie,  
Puntea zaio loratu;  
Orain emendik bear genduke  
(izena) ori koplatu.
86. Larrosa dago zabaltzen  
Usai gozoa banatzen;  
Asiko banaiz asi nadilla  
(izena) ori koplazen  
(izena) ori arrapatzeko  
Ariña bear du izen.
87. Txorie dago sasia,  
Birigarroa esian;  
Zu bezelako dama ederrik  
Ez da Ataungo errian.
88. Uretan eder al zera,  
(izena) eder nun zera,  
Nun zera bada nun zera,  
Emen agiri etzera.  
Zatoz onera ate ondora  
Guri illuna kentzera.
89. Sei galai gazte badauzkat eta  
Jarriko dizut aukera  
Neroni ere gaiean nago  
Baldiñ gustatzen bazera.
90. Enperadore Barcelonako  
Seme batentzat eske da,  
Artaz osteran enpeñoz dabill  
Biajero Panplonakoa,  
Nai dezuntxon bat aukera zazu  
Larrosa maietzekoa.
91. Etxe ontatik plazara  
Ar leunduz dago galtzara,  
(izena) ori aterako da  
Jai aundietan dantzara.
92. Kontsejupetik plaza berrira  
Asko daukazu begira,  
Zu bezelako dama gazterik  
Errian eztala berri da.
93. Usoak ego zabalak ditu,  
Lepo aldean lumatsu;  
Orren damatxo konponittue  
Nork eramango zaittu zu.
94. Damatxo gazte konponittue,  
Ori kolore gorrie,  
Zure matralla iruritzen zat  
Krabeliñaren orrie.
95. Klabeliñaren orriarekin  
Larrosa maietzekoa,  
Zuri begira ementxe nago  
Damatxo biotzekoa.
96. Notezi onak bialdu dizkitt  
Errege jaunak kortetan;  
Ezkondutzeko gogorik aber  
Egin dakizun gaztetan.
97. Nere gogoa zurekin dago  
Ez ibiltzeko bestetan,  
Errespuesta bialdutzeko  
Biar goizeko bostetan.
98. Udaberrian illarra berde,  
Udazkenean latza da;  
Dama gaztea badaukazu  
Besteatek aña patxada.
99. Preskorik zaude preskorik,  
Ez al dezu ezkon asmorik;  
Goierrri ontan ez det barrunda  
Dontzella ederragorik.
100. Baratzan eder lirio,  
Usai gozoa dario;  
Sei galai gazte ementxe gaude  
Zu ikustea medio.

101. Zu ikustea gaur guretzako  
Zer gusto biotzekoa,  
Leenbailen bada agertu zaitte  
(izena) biotzekoa.
102. Lezoak or du urbide,  
Pasaia Erreterie;  
Eraztuntxoan pasa litteke  
Damatxo orren gerrie.
103. Eraztuntxoa diamantea,  
Ukalondoa berdintsu,  
Orren damatxo konponittue  
Nork eramango zaittu zu.
104. Basoan eder albitze,  
Aizeak dantzan dabilltze;  
Erri ontako galai gazteak  
Zure ondoren dabilltze.
105. Paltsoen batek engaña etzaitzan  
Arren kontuan zabilta,  
Jaun zerukoak bialdu gaittu  
Aitzera ematen gabiltza.
106. Baratzen eder salbie,  
Pipatxo kirten gorrie;  
Orra bada ta (izena) orrek  
Illea dauka orie.
107. Illea dauka orie,  
Besoa beziñ lorie  
Edozeiñentzat ez da egongo  
Zure musutxo gorrie.
108. Esku musuak zuri ta garbi,  
Gerria berriz liraña,  
Jaun zerukoak egin zaitzala  
Ama on baten erraña.
109. Soñean eder kurpiño nabar,  
Lepokoetan enkaja,  
Geiago ederrak badira baño  
Zuk daramazu bentaja.
110. Etxaburuan itturri,  
Kañuan degu ekarri;  
Nekazariaren alaba da ta  
Erregearena dirudi.
111. Sugea dago negarrez,  
Erioaren bildurrez;  
Orra bada ta (izena) orren  
Musua laztan belarrez.
112. Musue laztan belarrez,  
Bulartegie zillarrez  
Askok beretzat nai loke baño  
Ama bereak eman ez.
113. Errotan dago iriñe,  
Aren azpian osiñe;  
Etxe berri bat egingo nuke  
Dama, neretzat baziñe.
114. Atun preskoak egitten dute  
Itsas gaiñean irari;  
(izena) zure leiondoetan  
Bosteun zaldun bellari.
115. Bosteun zaldun zaldizko,  
Beste ainbeste oñezko;  
Sedazko reja urre purpullak  
Ematen dizuelako.
116. Basakantxoa betea,  
Aurten du bere urtea;  
Merezi du ta koplá dezagun  
(izena) orren parteá.
117. Poltsean dauzkat diru bi  
Batak bestea dirudi;  
Orra bada ta (izena) orrek  
Urre botoia dirudi.
118. Orain aurrera goazen  
(izena) ori kopláutzen,  
Bosteun dukat omen dauzkatzu  
Irabaziak ardatzen.

119. Artaz oster a amak jarririk  
Dotearekin arreo,  
Gauzea pranko omen daukazu  
Eskojitturik baleo.

**APAIZARI**

120. Aldaran dago kalize,  
Soñean sobrepelize,  
Bikario jaunak bereak ditte  
Sakristi eta elize.

121. Abade sazerdotea,  
Ordena santuz betea,  
Beorren ordenak ekarri digu  
Mundura kristandadea.

122. Bikario jauna berori  
Ez da kortean agiri  
Notizi onak bialdu digu  
Birjiña Amak zerutik.

**BUKAERA**

123. Elizan eder liburu,  
Usoak aren iñguru;  
Guk izenikan ez dakiguna  
Paradisuan aiñgeru.

124. Etxaburuan artea,  
Sei egun ditte asteak;  
Gutxien dittunak zazpi ezkongai  
Etxe ontako gazteak.

125. Salamankan naiz izandu,  
Bidean estudiatu,  
Estudiante gazteak gera  
Eztegu ondo koplatu.

126. Etxe ondo latatu,  
Palaziotzat pintatu;  
Deskortesirik egin badegu,  
Jende nobleak, barkatu.

127. Izenetan dan ederrena da  
Nere jendeak Mikela,  
Gu emendikan bagoaz eta  
Gau on Jaiñoak diela.  
  
(Etxean Mikela izeneko  
emakumerik ez balitz):

128. Errekaldean igela  
Preskoa dauka gibela  
Gu emendikan bagoaz eta  
Gau on Jaiñoak diela.

## "SANTAGEDA" KANTAREN AZTERKETA

"Santageda" koplak gaur egun dagoeneko Ataun osoan kantatu ditugularik, zenbait desadostasun jaso izan dugu kantatzeko moduari dagokionean. Hala ere, esan behar dut, azken "Santageda" eska-leei ohorez jaso dudala kanta hau jaso dudan moduan.

Hika-mika hau argitu nahirik zenbait argibide eman nahi dut. Horretarako, hemen doaz "Santageda" kantatzeko era batzu:

Pedro Agirrek eta Joxe Bikuñak kantatua eta Felix Eskisabelek ere batzutan honela:

Musical notation for Pedro Agirrek and Joxe Bikuñak. The first line is a single staff in 3/4 time, starting with a treble clef. The melody consists of eighth and quarter notes. The second line is a triplet of eighth notes, marked with a '3' above the staff, ending with a double bar line.


Felix Eskisabelek batzutan honela:

Musical notation for Felix Eskisabelek. The first line is a single staff in 3/4 time, starting with a treble clef. The melody consists of eighth and quarter notes. The second line is a triplet of eighth notes, marked with a '3' above the staff, ending with a double bar line.

Joxepa Zeberriok batzutan honela:

Musical notation for Joxepa Zeberriok. The first line is a single staff in 3/4 time, starting with a treble clef. The melody consists of eighth and quarter notes. The second line is a triplet of eighth notes, marked with a '3' above the staff, ending with a double bar line.

Joxepa Zeberio batzutan honela:



"Santageda" kantaren kasuan berezitasunik nabarmenena musika-eskalako zein notatik abiatuz kantatzean datza.

Hiru hasera mota aztertuko ditugu:

- Har dezagun "DO" eskala (hau erabili bait dut kanta pentagramara transkribatzerakoan) eta kantaren abiapuntua eskalako bostgarren nota edo "Dominantea" ( SOL ) bada, honela izango litzateke kanta honen doinua (Ergoneko doinua deituko diogu):



- Baina, kantaren abiapuntua "DO" eskala bereko hirugarren nota edo "Mediantea" ( MI ) bada, honela izango litzateke (Aiako doinua deituko diogu):





Joanito Dorronsororen "Bertso Doinutegia" arakatzean hamalau kanta aurkitu ditut Ataunen jasotakoak. Horien artean gure "Santageda" zaharraren koplak bat: "Santa Ageda, Santa Ageda" koplak hain zuzen ere.

Honela jaso du Joanitik:

San - ta A - ge - da - San - ta A - ge - da gaur de - gu San - ta

5  
A - ge - da on - do - re - ne - an a - si gai - te - an na -

10  
gu - si jau - na ko - pla - tzen

Bertso Doinutegia 1221.or., 3. Tomoa

Kanta honen azpian honako ohartxo hau dakar: "Ataun San Gregorion horrela kantatu ohi zen gure gaztaroan. Aurrena koplariak kantatzen zuen koplak erdia, gero koru osoak errepikatuz: aldian behin 2. Puntu doinua sartuz, aspergarri gerta ez zedin".

Tonuari dagokionez, tonu minortzat hartzen du eta doinuaren egitura A1-A2 motakotzat hartzen du. Koplak lau haundia da.

Joanitik jasotako doinua, doinu egitura, azpian egindako oharra etab., niri behintzat, gogoeta mordoak dakarkit burura.

Lehenik, bi kadentzia edo eten berdineko kanta dugu.

Euskal kanta herrikoietan nekez aurkituko dugu bi kadentzia bereko kantarik. Gainera, esan behar da, esaldi musikala bi zati orokorretan banaturik azaltzen zaigula:

– Bata proposamena edo azalpena

"Santa ( i ) Ageda Santa ( i ) Ageda  
Santa ( i ) Ageda gaur degu"

– Bestea erabakia edo erantzuna

"Santa ( i ) Ageda gaur degu eta  
artxek bialdu gaitu gu"

Lehenengo etenaren bukaeran semikadentzia (akorde Dominantea) da ohikoena gure lauko haundietan, zentzu musikala eta koplarena berarena ere, nolabait esateko, aidean utziz. Eta bigarren etenean, bukaera bukaeran eraman ohi du kadentzia osoa (orokorrean Dominantea eta Tonika, honekin amaituz), atsedenaren sentsazio osoa sentitzen dugularik.

Zergatik gertatu da "eboluzio" hau gure "Santageda" kantan? "Diongraziaz" kantan ere gauza bera gertatzen da, kasualitatea ote?

Idea hau aspaldidanik darabilkit, eta Joanitoren oharra irakurri ondoren, zalantza guztiak argitu zaizkidala uste dut.

"Aurrena koplariak kantatzen zuen koplardia, gero koru osoak errepikatuz", koplardia, koantoto. Beraz, beti doinu berean aritzera behartuta zeuden; koplariaren doinua nolakoa, koruaren erantzuna halakoa. "Dios te salbe nere lagunak, altu ta berdiñ erantzun" dio bigarren koplak.

Nire ustez argi dago zerbait galdua duela doinu honek. Kantaren erdia hartu dugu kanta osotzat eta horrekin kadentzia bat galtzeaz gain ez ote dugu bigarren eteneko beste doinu bat ere galdu?

Felix Eskisabelek dionez, beraiek koplardia osoa kantatzen omen zuten eta erantzuna ere koplardia osoa izaten omen zen.

Beste gauza bat ere badu Joanitoren bertsoiak bukaeran: tonu maiorrean doa bukaera bitartean eta bapatean tonu minor bilakatzen da. Eta ez da Joanitok jaso duen eran hutsegiten duelako, ez. Nik ere zalantza handiak nituen horretan, biak bait nituen entzunda. Baina azken "Santageda" eskailei entzunez erabaki nuen pentagramara eraman dudana bezala eramatea.

Joanitok bere "Bertso Doinutegian" komentario bat egiten du "Sarreran"; alegia, bertsolariak oraintxe kantatuko du tonu maiorrean eta oraintxe tonu minorrean. Beste hau ere bai: bost bertsolari doinu berean eta aldi berean kantuan ari direlarik zein desberdin kantatzen duten; askotan doinu bera dela esatea ere...

Guzti hau kontuan izanik, gure "Santageda"ren bukaerako aldaera honi buruzko azalpena honako hau litzateke: har dezagun goian azaltzen den Aiako doinuaren bukaera eta hor azken bi notak "RE" eta "DO" azaltzen zaizkigu, tonu osoa, alegia, Joanitok jaso duenak bezala (Joanitok beste tonu batean du, baina musikalki ez da kontuan izatekoa). Hori bai, Joanitoren egiturak goian azaltzen den Ergoneko egiturari jarraitzen dio, eskalako bostgarren notatik hasi eta eskalako hirugarrenean amaituz, Ergoneko doinuak bezala, baina Ergonekoak "FA" eta "MI" ditu bukaeran, tonu erdia, alegia, Joanitoren "FA#" eta "MI" tonu osoaren orde. Oraintxe maiorrean, oraintxe minorrean, eskalako zein notatik hasi garen ez dakigula, azkenean nahasketa gehitxo. Aiatarren bukae-

rak (tonu osoa) eragindako amaiera duela esango nuke Joanitok jasotako doinuak. Izan liteke, bai, goian aipatzen dugun hirugarren hasera motari jarraitzea, baina, bukaera besterik ez dute berdina. Joanitorea tonu maiorrean doa bukaera bitarte eta bestea hasera haseratik dago minorrean.

Aurrera baino lehen zera argitu nahi dut; ez dut inor, ez pertsona, ez kantatzeko modu, kritikatu nahi. Baina, azterketa egiteko garaian ereduak behar izaten dira eta horra hor zergatik erabili ditudan pertsona (Joanito, berak xuxen jasota du) nahiz Aiatarren eta Ergondarren kantatzeko erak.

Azterketa musikala egiten ari naizelarik, kanta honen konpas egituraketari ere heldu nahi nioke. Isidro Baztarrikak eta Joanitok 2/4ko konpasa darabilte, baina nire ustez 3/4ko konpasa dagokio "Santageda" kantari, "Diongraziaz" kantari bezalaxe, biak bait dute erritmo berbera.

Musikak bi aide nagusi ezagutzen ditu: bi zatikoa, bata eta hiru zatikoa, bestea. Koanto, bi aide nagusi horiek adar eta adaxka asko dituzte.

Konpaseko lehen zatia da beti fuertea (erritmoaren azentuazioa markatzen duena, alegia) eta bestea (bikoa bada) edo besteak (hirukoa bada) debilak.

Beraz, edozein doinu aztertzean, erritmoaren azentuak edo oinarri diren notek esango digute zein konpasetan transkribatu behar dugun.

Luzapenetan ibili gabe heldu diezaigun gure "Santageda" kantaren egitura musikalaria (xehetasun guztiak adieraztea solfeo ikasketak egitea eskatzen bait du).

Esan dezadan doinu hau hiru zatikoa dela, eta aide honen barruan Anfibrako luzatua dela.

Erritmo Anfibrakoa:

Z = Zelula erritmikoa

T = Talde erritmikoa

P = Periodo erritmikoa

+ = Iktus, tesis edo azentudun nota

P-1

T-1	T-2		
Z-1	Z-2	Z-3	Z-4

A-la-ba -tu- e be-deiñ-ka-tu - e sa-kra-ra-men-tu san-tu- e

5                    5                    5                    3

Elkarrenganako simetria osoa duten zelula erritmikoz osatua dago periodo musikal hau. Hala ere hirugarren konpasean hitzak hirugarren zatiari aurre hartu beharrean berarekin bat eginez kanta-  
tzeak erritmo aldaketaren itxura ematen dio kantari.

Hemen "Santageda" kantaren erdiaren azterketa egin dut, doinu bakartzat hartua izan baita kanta erdia. Baina, kanta hau osatuko lukeen bigarren doinu bat ere berarekin du honek, nahiz eta oso gutxitan kantatu zuten azken "Santageda" eskaleek. Joxepa Zeberiori entzun nion lehen aldiz eta Patxi Arratibelek ere gogoan du, nahiz eta ez den gogoratzen noiz edo nola kantatzen zuten bigarren eteneko doinu honetan. Patxik dionez, ziur ez badago ere, "Santageda" koplen artean azaltzen zaizkigun seiko egiturako kopletan sartzen ote zuten susmoa adierazi zidan. Baina, ez zegoen ziur. Nik, behinik behin, kantaren osagarritzat hartzen dut bigarren eteneko doinua eta horrela adierazi dut kanta hau bilduma honetan jasotzerako orduan.



*Argazkia: Karlos Corbella*



Argazkia: Karlos Corbella



Argazkia: Karlos Corbella

## OTSAILLKO edo OTSABILLKO <sup>1</sup>

Eske kanta (?) zahar hau garizuman sartu aurreko ostegunean (ostegun gizen) kantatzen zen. Oraindik galtza motxetan ibiltzen ziren mutiko kozkorak atez-ate ibiltzen ziren eskean.

Kanta honen usadioa duela 25-30 bat urte galdu zen.

Eginahalak egin ditudan arren, ez dut inon aurkitu gure Otsaillkoren antzekorik. Badira, bai, Ostegun gizenaz usario hau izan duten herriak, eta gainera Ataunen bezala, mutiko kozkorak ibiltzen ziren eskean, baina gurearen antzekorik ez dut aurkitu.

Ondoren ikusiko duzuen bezala kanta hau, kantatu baino gehiago "errezitatu" egiten da. Gainera oso modu berezian errezitatzen da, mehatsu gogor gisa alegia.


Honela dio eske kanta honek:

Otsaillko, Otsaillko  
 Ni basoa junda  
 Otso aundiat ekarriko  
 Lukaika mutur bat emateztianai  
 Ateek eta leiok ausiko! ausiko!

Ez da erraza, baina errezitzeko modu berezi hau ahal dudana hobekien azaltzen saiatuko naiz:



O - tsai - ll - koo - tsai - ll - ko    ni ba - soa - jun dactsoaurdiat e - ka - rri - ko    lu -



kai - ka muturbat e - ma - teez - ti - na - i    a - tek e - ta lei - ok au - si - ko au - si - ko

Irudien gainean azaltzen den " ^ " zeinuari dagokion hizkia indarrean ahoskatu behar da eta gainerakoak modu apalagoan.

<sup>1</sup> Ergondarrek Otsaillko esaten dute

## SAN NIKOLAS

Abenduaren 6an kantatu ohi zen eske kanta "trakets" hau. Askok eta askok galdetu izan dute zer den erabiltzen dugun hizkuntza hori; Euskera, Gaztelera...

Egia esan ez da gutxiagotarako.

Dudarik gabe, Gaztela aldeko eske kanta (Canción de ronda) bat da eta, ziurrenera, gure herrira iritsi zenerako nahiko trakestua egongo zen (beste herrietako bertsioak lekuko). Hala ere, Ataundarrok, azkeneko errematea eman diogulakoan nago.

Aipagarria da gure herrian bertan, desberdintasun nabarmenak ematen direla hitzari dagokionean. Esate baterako, Ataungo behekaldean "Mater karlina"tik aurrera gaztelera egokia erabiltzen zuten bitartean, goikaldean... Hala ere aurreko zatia denok berdintsu kantatu izan dugu.

Lan honetan garai hartan kantatu genuen erarik traketsenean azaldu nahi dizuet, euskaldunok gaztelera egiteko genuen "erraztasunaren" froga gisa.

Beste askoren antzera, aitortu behar dut, kanta trakets hau kantatzerakoan esan nahi genuena ezagutzeko jakinmina izan dudala betidanik.

Eta hara eta hona ibili ondoren, beste herrietako bertsioak aztertu eta landu ondoren, hona hemen, Ataungo bertsio traketsa eta, nire ustezko itzulketa:

Sannikolas koronaro  
Artzobispo mariondraro  
Kombesore soberano  
Mikerio miamaro  
Aren aren arengrie  
Gure mundu salbarie  
Sinosdari nonosdari  
Aki no nos tetengari  
Por demorde Sannikolas  
Sannikolas kilis kolas  
Toma kastaña  
Mater karlina  
Urdaie kanpon  
Para golispo  
Akilikos somos  
Tertziola jamon  
Si nos ta nos nos ta  
Koatro pollos i una limosna.

San Nicolás coronado  
Arzobispo muy honrado  
Confesor es soberano  
Muy querido muy amado  
Amén amén aleluya (alegría)  
Salvador de nuestro mundo  
Si nos dais, no nos dais  
Aquí no nos tengais  
Por amor de San Nicolás  
San Nicolás quilis-colás  
Toma castañas  
Mater carlina  
Una de jamón  
Para el obispo  
Angelitos somos  
Del cielo bajamos  
Si nos da no nos da  
Cuatro pollos y una limosna.

Hona hemen San Nikolas kanta:

San Ni-ko-las ko-ro-na - ro ar-tzo-bis-po mariondra - ro kon-be-so-re so-be-ra -

4  
no mi-ke-ri - o mi - a - ma - ro a-ren a-ren a-ren-gri - e gu-re mun-du sal-ba-ri -

7  
e si-nos-ta - ri no-nos-ta - ri a - ki no nos te-ten-ga - ri por-de-mor-de San Ni - ko -

10  
las San Ni-ko-las ki - lis ko - las to - ma kas - ta - ña ma - ter Kar - li -

13  
na ur - dai - e kan - pon pa - ra - go - lis - po a - ki - li - kos

16  
so - mos ter-tzi - o - la ja - mon si nos - ta no nos -

19  
ta koa - tro po - llos iu - na li - mos - na



*1961. Begoña Munduatek utzitako argazkia*

## SAN NIKOLAS TXIKIE

Eske kanta hau berriz, neskatilek kantatu ohi zuten San Nikolas egunean. San Gregorioko neska gazte batzuk kantatu zidaten eta usadioari duela 30 bat urterarte eutsi diote.

Jose Inazio Ansorenaren "Euskal Kantak" liburuan (177.orr.) gurearen oso antzeko bertsioa aurkitu dezakegu, nahiz eta doinua desberdina duen kanta honek ere.

Honela dio kantak:

San Nikolas txikie  
Gure ganbaran azie  
Gure ganbaran zer dago?  
Andra Juanamarie  
Bost eta sei amaika  
Txorizorik ezpada  
Igoal da lukaika.

Eta hona hemen bere doinua:

San Ni - ko - las txi - ki - e gu - re gan-ba-ran a -

4  
zi - e gu - re gan-ba-ran - zer da - go an - dra Joa - na - ma -

8  
ri - e bost e - ta sei a - mai - ka txo - ri - zo - rik ez -

12  
pa - da i - goal da lu - kai - ka



*Arbeldiko sendiak utzitako argazkia*

## AIÑGERUAK GERA

Eske kanta hau, haurtxoek kantatzen zuten San Nikolas eta Gabon egunean.

Hitzei dagokionean, zenbaitek aldaketa txiki bat egiten zuten kantaren hirugarren lerroan: "Aita Sannikolasentzat" esan ordez, "Niño Jesusentzat" esanaz.

Honela dio:

Aiñgeruak gera  
Zerutikan bera  
Aita Sannikolasentzat  
Limosna biltzera.

Doinua hau da:

The image shows two staves of musical notation in G major (one sharp) and 2/4 time. The first staff contains the melody for the first line of lyrics: "Aiñ - ge - ru - ak ge - ra ze - ru - ti - kan be - ra". The second staff contains the melody for the second line of lyrics: "ai - ta San Ni - ko - la - sen - tzat li - mos - na bill - tze - ra". The second staff begins with a measure rest marked '5' and contains two triplet markings over the first two measures. The time signature changes from 2/4 to 3/4 for the first measure of the second line, and then returns to 2/4 for the remaining measures.



*Margarita Goikoetxeak utzitako argazkia*

## ARTZAI BURU ZURI BI

Eske kanta hau 14 urtetik beherako herriko mutil eta neskatsek kantatu ohi zuten Eguberri bezperan.

Nikolas Zurutuzak esan zidanez, mutilak galtza luzeak jazteko irrikitzen egoten omen ziren "Diongraziaz" eskean ateratzearren. Jakin ba dakigu, hamalau bat urte bete arte mutikoak galtza motxetan ibiltzen zirela eta iluntzerako etxean egon behar izaten zutela. Behin galtza luzeak jantziz gero, gauaz ibiltzeko baimena izaten zuten eta, beraz, gauaz eskean ibil zitezkeen.

Batarekin eta bestearekin hitzegin ondoren, lau estrofa hauek jaso ahal izan ditut:

1. Artzai buru zuri bi  
Anton eta Peru  
Belengo estalpera  
Etorri zaizkigu


3. Batek arkumea ta  
Besteak ardia  
Oso pozikan ziran  
Jose ta Maria

2. Sartu dira barrena  
Manueltxogana  
Eskeiñtzera biotzez  
Arkumetxo bana

4. Agur! eskerrikasko  
Agur! Etxekoak  
Urrengo urterarte  
Emendik bagoaz

Doinuari dagokionean "Berrionakin gera"-ren doinu berarekin kantatu ohi zen, nahiz eta bakarren batek gaur egun ezagunagoa den "Haur eder baten bila" erabiltzen bazuen ere.

Hona hemen doinua eta lehen estrofa:





*Arbeldiko sendiak utzitako argazkia*

## GOAZEN GOAZEN GUZTIOK

Eske kanta hau Isidro Baztarrikak jasoa da (J.D., 74-77, 73 orr.) eta bertan dioenez Joan Arinen papeletatik jaso omen zuen. Honen arabera, kanta hau, 1900 urtean sartu zen, gutxi gora behera, Ataunen.

Ataundik kanpora ere oso ezagunak dira koplak hauek, guztiak ere "Ogeita Laugarrena" izenburua dutelarik, izan ere, gure kantaren Laugarren koplatik hasten bait dira. Joan Arinen bertsioa ere "Ogeita Laugarrena"tik hasten omen da, eta hemen azaltzen den bertsioa Markox Agirrerengandik eskuratu duela dio Isidro Baztarrikak. Julian Munduatek ere horrelaxe gogoratzen du.

Eske kanta hau neska taldeek kantatzen omen zuten, Eguberri bezpera goizez hasi eta ilundu arte.

Kanta honen doinua, bestalde, Iñaki Arratibelek kantatu zidan. Julian Munduatek zertxobait aldatzen du baina oso antzera kantatzen du. Bestalde Aiarreko Maria Arratibelek erabat erritmo desberdinez kantatu zizkidan koplak hauek eta Isabel Aranak berriz, "Berrionakiñ gera" doinuaz kantatu zidan.

Koplen egitura honako hau da:

Goazen goazen guztiok	7
Laisterka Belena	6 A
Adoratu dezagun	7
Aurrik ederrena	6 A

Doinuari dagokionean, nota berberekin kantatutako doinua izanarren, interesgarria da bi erritmoak azaltzea:

Hona hemen Iñaki Arratibelek erabilitako doinua eta erritmoa:

Goa - zen goa - zen guz - ti - ok    laix - ter - ka Be - le - na    a -

5

do - ra - tu de - za - gun    au - rrik e - de - rre - na

Eta hauxe Maria Arratibelek erabilitako doinua eta erritmoa



Goa-zen goazenguz - ti - ok laix - ter - ka Be - le - na a - do - ra - tu de -



za - gun au - rrik e - de - rre - na

- |  |   |  |
|--|---|--|
| 1. Goazen goazen guztiok<br>laisterka Belena,<br>adoratu dezagun<br>aurrik ederrena. | 7. Astoa ta idia<br>dauzka aldamenean<br>arnasaz berotzeko<br>oztutzen danean.          | 13. Txit maitte gaittuala<br>ongi da ezagun,<br>beraren alabantzan<br>kantatu dezagun. |
| 2. Aiñgeruak esan du<br>or mendi gaiñean<br>Jesus jaio zaigula<br>Belengo estalpean. | 8. Txit egun ditxosoa<br>degu Eguarri,<br>zergatikan dan Jesus<br>gugana etorri.        | 14. Aurtxo bedeñkatua<br>degu milla grazi,<br>guretzako zerua<br>nai du irabazi.       |
| 3. Gloria zeruan da<br>pakea lurrean,<br>borondate oneko<br>gizonen artean.          | 9. Guztiok bear degu<br>debozio jarri<br>eskerrak emateko<br>jaio dan aurrari.          | 15. Gu salbatzeagatik<br>eta nola bizi<br>guri erakusteko<br>da zerutik jetxi.         |
| 4. Ogeita laugarrena<br>degu abenduan,<br>deseo genduen<br>iritxi genduan.           | 10. Espiritu santuaren<br>obraz sortu dena<br>Trinidad Santuko<br>bigarren pertsona.    | 16. Zorionean Jesus<br>zu jaio ziñaden,<br>bestela zeruetan<br>sartzen ez giñaden.     |
| 5. Gaueko amabiak<br>jo duten orduan<br>gure Salbatzaillea<br>jaio da munduan.       | 11. Amari galdu gabe<br>dontzellatasuna<br>jaio zaigu Belenen<br>gure Jesus ona.        | 15. Gu salbatzeko gizon<br>egiñ zera emen,<br>glorian gozatzeko<br>alkarrekin. Amen.   |
| 6. Belengo portaleko<br>estalpe batean<br>umill jaio da Jesus<br>ganadu tartean.     | 12. Zer poza biotzean<br>guk orain daukagun,<br>Jaungoikoaren semea<br>etorri da lagun. |  |

## DIONGRAZIAZ EDO AGUR, AGUR



*Argazkia: Martin Arruabarrena*

Ataunen bi izenburu hauek erabili izan ohi dira Gabon gauaz kantantzen den eske kanta hau izendatzeko; Behekaldean DIONGRAZIAZ (Deo gratia) erabiltzen den bitartean, goikaldean (Ergone eta Aian), AGUR AGUR izenez ezagutzen da.

Isidro Baztarrikak (Jaunaren Deia, 74-77 zkia., 67 orr.) Joan Arinengandik jasotako pasarte dionez, kanta hau oso ezaguna izan omen zen gure herrian XIX. mendearen erdialdean. Eta, dirudienez, Albitutegi baserriko errementari batek asmatu zuen txingura gainean mailuka ziharduen bitartean.

Hipotesiak hipotesi, zera esan dezakegu ziurtasun osoz, Gabon kanta zahar hau oso zabaldua izan dela Euskalerrri osoan zehar.

Antzekotasunik handiena, doinu aldetik alegia, Ziordiakoak (C.P.V. II, 914 zkia., 1071 orr) du. Beherago ikusiko ditugun 1.go eta 2. pentagrametako melodien nahasketa bat da nolobait esateko.

Usadioari dagokionean, gainontzeko gabon kanta zaharren antzera (Berrionakin gera salbu), erabat galdua dugu gure herrian.

Oker ez banago, Arratingo Nikolas Zurutuza eta bere lagunek kantatu zuten San Gregorion eta Joan Aizpurua eta bere lagunek San Martinen azkenengo aldiz, 1970. urtean gutxi gora-behera.

Hala ere esan behar da, azken urte hauetan Anmistiaren Aldeko Batzordeak eta Eskolako Guraso elkarteak kanta honen zenbait kopia kantatu dituztela gabon eskean.

Bestalde, Eate Abesbatzaren kanta kuttuna ere ba dela esan behar da, beren emanaldi gehienetan kantatu ohi dutelarik, entzulearengan zirrara eta sentimendu berezi bat sortaraziz.

Kantaren nondik-norakoan zertzelada labur honen ondoren, goazen koplen egitura eta doinua aztertzerara:

Kopla guztiak aztertu ondoren bi egitura desberdin ikusi ahal izan dut:

A) motakoak (gehienak).

Diongraziaz buena gente	10
Guztiori gabon gauean	8 A
Belendik gatoz kontsolaturik	10
Jesus jaio danean.	8 A

B) motakoak (lau).

Birjiña Ama, andrea	8 A
Ai! ori umilldada	8 A
Narru gorrian nola daukazu	10
Zeru ta lurren jabea?	8 A

Doinuari dagokionean, A) egiturako koplek honako doinu hau daukate:

The image shows three lines of musical notation in treble clef, 3/4 time, with a key signature of one sharp (F#). The notes are: 1. Di - on gra - zi - az bu - e - na jen - te guz - tio - ri; 2. gau - on gau - e - an Be - len - dik ga - toz kon - tso - la -; 3. tu - rik Je - sus jai - o da - ne - an. The first line starts with a treble clef and a key signature of one sharp. The second line starts with a '3' above the staff, indicating a triplet. The third line starts with a '6' above the staff, indicating a sixteenth note. The music ends with a double bar line.

Hemen ere tartean behin, beste doinu hau sartzen zen:



Di - on gra - zi - az bu - e - na jen - te guz - tio - ri

3



gau - on gau - e - an

Hankamotz geratzen den zenbait kopla ere bada.

Konpara ditzagun pentagrametako 3. eta 7. konpasa eta berehala ohartuko gara hortaz. Hasieran hankamotz geratzen diren beste hauek:

- 3. kopla: Agur, agur jente noblia
- 18. kopla: .....  
.....  
Gure Jesus nola jaio dan
- 22. kopla: .....  
Oinak busti eskuak hoztu.

Lehenengo konpasean aldaketa txiki hau legoke:



A - gur a

Kantatzeko moduari dagokionean, lehenik bakarlariak lehen pentagramako doinua kantatzen du ondoren dagokion erantzuna jasotzen duelarik. Erantzuna, bi pentagrametako doinuak duan eginez ematea proposatuko nuke, ahots joku atsegina eta interesgarria sortzen bait da:

Di - on gra - zi - az bu - e - na jen - te guz - tio - ri

3  
gau - on gau - e - an

B) egiturako koplek honako doinu hau dute:

Paz - ko - ak di - ra o - ne - la Je - sus au -

3  
rra - ren e - de - rra

Hortik aurrera lehenengo pentagraman bezala jarraitzen du.

Besterik gabe, goazen gabonetako eske kanta zahar honen koplak ezagutzera:

1. Diongraziaz buena jente  
Guztiori gabon gauean  
Belendik gatoz kontsolaturik  
Jesus jaio danean.
2. Ai! au gauaren zoragarria  
Jaio da Jesus Belenen  
Pozaren pozez etorri gera  
Kantatutzeko gaur emen.
3. Agur agur jente noblia  
Berri on bat dakargu  
Atentzion bat eduki beza  
Iñork adittu nai badu.
4. Adan da(i) Ebak egin zutian  
Paradisuan pekatu  
Gure neke ta trabajuak  
Andikan ziren gertatu.
5. Jaun zerukoak berealarik  
Ordutik zuen pentsatu  
Denborarekin bearco zala  
Beste Ebaren bat kreatu.
6. Eba(i) derra birjiña zala  
Zorionen bat lasatu  
Aren entraiña garbietatik  
Zuen gorputz bat formatu.
7. Len eta gero dontzeilla garbi  
Betiko izan zan geldittu  
Adan berri bat izandu zediñ  
Izaz mundua libratu.
8. Adan berri au gaurko gauean  
Mundura etorri zaigu  
Lengo Adanekiñ Ebaren gaitzak  
Nai zittuela sendatu.
9. Eba(i) ederra Joseperekiniñ  
Belenen zuten topatu  
Ango estalpe pobre batean  
Eman zioten ostatu.
10. Estalpe pobre onetan zeuden  
Jesus, Maria eta Jose  
Gure munduaren ejenplorako  
Berak nai zuten alaxe
11. Jaungoikoaren seme bakarra  
Gaurko gauaren erdian  
Belengo portalepean dago  
Jaiorik narru gorrian.
12. Birjiña(i) ama, andrea  
Ai! ori umilldadae  
Narru gorrian nola daukazu  
Zeru ta lurren jabea.
13. Nere esposa juxtue  
Nun dezu nere mantue?  
Estali zazu entrañatatik  
Jaio dan orren frutue.
14. Jesus dultzea mundura zaigu  
Pobreza aundi batean  
Astoarekiñ ta idiarekiñ  
Oillarraren artean.
15. Arnasarekiñ berotzen zuten  
Astoak eta idiak  
Mantuarekiñ estali zuen  
Ama Birjiña Mariak.
16. Aurtxo ederra kontsolatzen du  
Oillarraren soiñuak  
Zeren zenduzken beti presente  
Gure munduko daiñuak.

17. Jesus dultzea gizon egiñ da  
Mundu onetan gugatik  
Gure penaren kontsueloa  
Ekarri digu zerutik.
18. Izarrak dira mudatu  
Mundu guztia argittu  
Gure Jesus nola jaio dan  
Guk bear dugu sinistu.
19. Aiñgeru batek abisaturik  
Artzai onai mendian  
Jaio dan aurra adoratzeko  
Datoz gauaren erdian.
20. Pazkoak dira onela  
Jesus aurraren ederra  
Zeru ta lurren jabea da ta  
Nola litzake bestela.
21. Begira zazu nola jaio zan  
Gure jabea pobre zan  
Ikasi zazu ejemplo ori  
Ez da geiago zer esan.
22. Gaurko gau oni gabon deritza  
Emen gabiltza dolorez  
Oiñak busti eskuak oztu  
Iñork ezer eman ez  
Karidade bat eskatzen degu  
Jaio dan aurren amorez.

Zenbait taldek bukaera gaztelaniaz eman ohi zion ondorengo koplak hauek kantatuz (azken koplaren gutxi gora beherako itzulpena da):

Esta noche es Nochebuena  
No es noche de dormir  
Porque la Virgen está de parto  
y a las doce ha de parir  
Por amor de Jesucristo  
Una limosna en caridad.

## IRUÑ ERANTZUN

Kanta hau Azkueren "Cancionero Popular Vascotik" (1113 or, II tomoa) jaso dut. Santageda kantaren bigarren koplaren antzekoa da eta doinu desberdina izango ez balu, Santagedaren bigarren koplaren aldaeratzat hartu zitekeen.

Azkuek ez du esaten noiz edo nola kantatzen zen, ez eta norengandik jaso zuen ere. Ataunen jasoa dela esatera eta eske kanten sailean kokatzera mugatzen da.

Koplaren itzulpena egiterakoan zera dio: "Irun-Aranzu, nombre antiguo de Irún". Aranzu erabiltzen du eta badirudi imprimategiko akatsa izango dela; Irun-Uranzu baita izena.

Hona hemen doinua eta jasotako kopla bakarra:

I - ruñ e - ran - tzun e - rri o - na da a-re(i) o -

be - a Oi - ar - tzun ne - re la -

gu - nak di - os te sal - be gar - bo - a - re - kiñ e - ran -

tzun

Iruñ-erantzun erri ona da  
 Are(i) ohea Oiartzun.  
 Nere lagunak Dios te salve  
 Garboarekin erantzun.



*Argazia: Martin Arruabarrena*



*Argazia: Martin Arruabarrena*

## BERRI ONAKIÑ GERA

Hauxe dugu Ataungo eske kanta zaharren artean oraindik bizirik dirauen bakarra. Egia esan, San Martinen bakarrik eusten zaio usadio zahar honi, San Gregorion eta Aian erabat galdua dela uste duten bitartean. Hala ziurtatu ahal izan dut behinik behin auzokideekin hitz egiterakoan.

Isidro Baztarrikaren lanean Joan Arinek dio “Belen zaharra” izenez ezagutzen zela eta 1.900 urte inguruan sartu zela Ataunen (ikus J.D., 74-77, 69.orr.).

Eske kanta zahar hau, urte zahar egunean kantatu ohi da betidanik.

Lan hau egiterakoan hiru bildumaz baliatu naiz:

Isidro Baztarrikarena (25 kopla), Joan Aizpuruak utzitakoa (24 kopla) eta, herrian darabilguna (28 kopla). Denak antzekoak dira, eta hiruen arteko batuketa bat egin eta ikuitu batzuk gehiago emanaz, 31 koplaz osaturiko bilduma hau aurkezten dizuet.

Koplen egitura honako hau dugu:

Berri onakiñ gera	7
Jendeak etorri	6 A
Aiñgeruak zerutik	7
Digute (i) ekarri	6A

Ataunen erabili ohi den doinua, berriz:

Be - rri o - na - kiñ ge - ra jen - de - ak e - to -

4  
rri aiñ - ge - ru - ak ze - ru - tik

7  
di - gu - te(i) e - ka - rri

Lehenik bakarlariak kantatzen du koplak eta ondoren koroak duoa eginez erantzuten du:

Be - rri o - na - kiñ ge - ra jen - de - ak e - to -  
rri aiñ - ge - ru - ak ze - ru - tik  
di - gu - te(i) e - ka - ri



Argazkia: Santi Etxeberria

Eta hauetxek dira oraindik bizirik dauden eta luzaroan irautea espero dudan koplak:

1. Berri onakiñ gera  
Jendeak etorri  
Ainñgeruak zerutik  
Digute(i) ekarri.
2. Guk ere eman bear  
Diogu alkarri  
Ainñ dan zoragarria  
Imajiña(i) ori.
3. Oraingo notizia  
Egia klaro da  
Ainñgeruaren esana  
Eziñ leike duda.
4. Onek merezi dittu  
Baten lekuan bi  
Beraren etorrera  
Santifika bedi.
5. Berri onak ematen  
Asten gera gaurtik  
Biar zelebratzeko  
Degun urteberri.
6. Pasatu bear degu  
Egun aundi ori  
Alabantzak ematen  
Zeruko erregeari.
7. Adanek eta Ebak  
Utsegiteagatik  
Desterratuak gaude  
Gu paradisuatik.
8. Balle triste onetan  
Egon bear beti  
Ez bazaigu etortzen  
Mesias zerutik.
9. Profetak aditzera  
Eman zuen leenago  
Mesias prometittua  
Etortzeko dago.
10. Galilean dagoen  
Familia ori  
Zeru lurren Errege  
Degu agintari.
11. Ordena eman zioten  
Ango jendeari  
Belengo errebistara  
Presentatu bedi.
12. Errebista pasata  
Etorri zan gaua  
Ainñ zan ikusgarria  
Ango jende pillar.
13. Bildu diran guztiak  
Erretira dira  
Jose eta Maria  
Ostatuaren billa.
14. Amazazpi etxetan  
Egiñ zuten oles  
Alojamenturikan  
Izango zan galdez.
15. Ainñbeste abittante ta  
Lekurik eman ez  
Josepe triste dago  
Penaz ta dolorez.
16. Josek esaten dio  
Bere Mariari  
Estalpe bat badakitt  
Eta segi neri.

17. Estalpe bat badakitt  
Eta segi neri  
Antxe deskantsatuko  
Zera triste ori.
18. Portaletik kanpora  
Estalpe batean  
An alojatu ziren  
Ganadu artean.
19. Estrabilla orretan  
Jose ta Maria  
Antxe pasatu zuten  
Beren aparria.
20. Aparria pasata  
Gauaren erdian  
Jesus irugarrena  
Zuten familian.
21. Askatxo batean da  
Lasto biguñgarri  
Antxe sortua degu  
Infante eder hori.
22. Gaueko amabiak  
Jo duten orduan  
Gure salbatzaillea  
Jaio da munduan.
23. Belengo portaleko  
Estalpe batean  
Umill jaio da Jesus  
Ganadu artean.
24. Astoa eta iria  
Dauzka aldamenean  
Arnasaz berotzeko  
Oztutzen danean.
25. Zeru lurren jabea  
Izanik beori  
Abere oien artean  
Pobre bat dirudi.
26. Infante horren ama  
Beti garbi dago  
Kristalik garbiena  
Baño garbiago
27. Kristalean argia  
Garbi da pasatu  
Leen eta gero ere  
Dontzella geldittu.
28. Zerutarrak ai dira  
Musikea jotzen  
Aiñgeruak illaran  
Gloriaz kantatzen.
29. Artzaiak salto salto  
Mendian barrena  
Jesus adoratzera  
Al dan lasterrena.
30. Artzaiak belauneko  
Jesus adoratzan  
Jose eta Maria  
Begira zoratzen.
31. Guk ere adora zagun  
Biotzetik emen  
Gero bizi gaittezen  
Alkarrekiñ amen.

**SEHASKA KANTAK**



*Argazkia: Andoni Aizpurua*

## LOA, LOA

Sehaska kanta hau Azkueren “Cancionero Popular Vascotik” (238-239 or., I tomoa) atera dut, bertan autoreak, LOA LOA kanta Ataunen jaso delako adierazten digu.

Kanta hau pianoan jotzen ari nintzen egun batean, emazteak esan zidan oso ezaguna zitzaiola entzuten ari zen doinua. Ondoren kantatu egin nion eta bapatean, haur bat besterik ez zela, amak kantatu ohi zuen sehaska kanta zela ohartu zen.

Geroztik saio ugari egin dut herrian zehar kanta hau gogoratzen duen norbait aurkitzearen. Eta adineko jende askorentzat oso ezaguna den arren, oraindik behintzat, inor ez zait kantatzera ausartu.

Joanito Dorronsorori bilduma honetako kantei buruzko iritzia eskatu nion eta honako komentario hau egin zidan sehaska kanta honi buruz: “Euskal herri mailatik begira, aipatzekoa dek dudarik gabe **Loa loa ttunturrun berde** kantaren garrantzia eta edertasuna; ez dek harritzekoa, Azkuek jaso ondoren izan duen zabalkunde eta estimazioa. Nik gogoan diat, anekdota gisa, gure etxeko senideok, bazkalondoan eskolara joan aurretik, senide gazteagoari lo harrarazi egin behar izaten geniola ama zenaren aginduz, beste gure lagunak frontoian edo plazan jolasean zebiltzan bitartean. Inoiz egingo genian tranpatxoren bat, jolaserako grinak bultzaturik, umeak lo hartu baino lehen, pixka batean isilik egon zedila eskatu ondoren, hanka puntetan eskaileretan joango ginuztean lagun artera eta gero gerokoak. Beste sehaska kanten artean, **Loa loa** hauxe genian erabilgarrienetakoa.”

Azkueren lanera bueltatuz, zera azpimarratu nahi nuke; autoreak, kanta Ataunen jaso delako esaten badu ere, ez digu argitzen noren ahotik jaso zuen.

Hona hemen hitzak:

Loa, Loa, Ttunturrun berde,  
Loa, Loa, maxusta,  
Aita gurea Gasteizen da  
Ama mandoan artuta.  
Loa, Loa.

Aita gurea Gasteizen da.  
Ama mandoan artuta,  
Aita gureak diru asko du  
Ama bidean salduta.  
Loa, Loa.

Azkuek dionez, beste honako estrofa hau ere ba omen zuen aurretik:

Dringilin drangulun eragiozu,  
Laster aziko natzaizu,  
Laster azita gero lagundu  
Mesede izango nazu.

Eta hauxe dugu kanta honen doinu zoragarria:

Lo - a lo - a ttun - ttu - rrun ber - de Lo - a lo - a ma - xux -

4 ta ai - ta gu - re - a Gas - te - i - zen da a - ma

7 man - do - an ar - tu - ta lo - a lo<sup>3</sup> -

10 a Ai - ta gu - re - a Gas - te - i - zen da a -

13 ma man - do - an ar - tu - ta ai - ta gu - re - ak di - ru as -

16 ko du a - ma bi - de - an sal - du - ta lo -

19 a lo<sup>3</sup> - a

Ezin dut sinistu doinu zoragarri hau kantatzeari nolaz utzi dioten gaurko amonek. Behar bada, "Ama bidean salduta" hitzek zer ikusia izango dute?

Azkuek kanta honen aldaera bat (C.P.V., 241 or., I tomoa) ere badakar. Hau ere Ataunen jaso den arren ez du norengandik jaso zuen esaten.

Honako aldaketak soma daitezke:

Hitzari dagokionean; Gasteizen ordeztu Bitorian.

Doinuari dagokionean; lehenengoa tonu minorrean dago eta bigarrena, berriz, tonu maiorrean. Gainera kantaren erditik aurrera doinua zertxobait aldatu egiten da.

Hona hemen aldaera honen hitzak:

Loa, Loa, Ttunturrun berde,  
Loa, Loa, maxusta,  
Aita gurea Bitorian da  
Ama mandoan artuta.

Aita gurea Bitorian da.  
Ama mandoan artuta,  
Aita gureak diru asko du  
Ama bidean salduta.

Eta doinua, berriz:

Lo - a lo - a ttun - ttu - rrun ber - de

4  
lo - a lo - a ma - xux - - ta Ai -

7  
ta gu - re - a Bi - to - ri - an da a -

10  
ma man - do - an ar - tu - ta



## LOLO TXIKIE LOLO AUNDIE

Ondoren aurkezten dizuedan kanta gure amak, bere seme alaba guztioi kantatu zigun sehaska kanta da. Eta guk denborarekin honela kantatu ohi genion gure arreba txikienari:

Lolo txikie, lolo aundie,  
Lolo engaiñadorea,  
Lolo aundiak engaiñatzen du  
Luixa Maritxo gurea.

Loo, loo.

Joxe Arratibelek honako beste hau ere kantatu zidan:

Lolo txikie, lolo aundie,  
Ez egin lorik basoan,  
Eiztaritxoak arrapa etzaiten  
Erbia zeralakoan.

Loo, loo.

Hirugarren lerroari dagokionean, gure amak beste era honetara gogoratzen du:

“Otso Gaiztoak jan etzaitzan”.

Joxe Arratibelek, ama Lauztierrekakoa izaki, doinu bereberaz kantatu zidan.

Hona emen doinua:

The musical notation is written on a single treble clef staff. It consists of three lines of music, each with a different time signature. The first line is in 3/4 time, the second in 2/4 time, and the third in 2/4 time. The melody is simple and consists of eighth and quarter notes. The lyrics are written below the notes.

Lo - lo txi - ki - e lo - lo aun - di - e lo - lo en - ga -  
ña - do - re - a lo - lo aun - di - ak en - ga - ña - tzen  
du Lui - xa - ma - ri - txo gu - re - a



## NERE MAITTEA LO

Kanta hau Prantxika Aierdik kantatu zidan:

Nere maittea lo ta lo dago,  
Biok egiñgo degu lo,  
Biok egiñgo degu lo eta  
Oraiñ zuk eta nik gero.  
Loo, Loo.

Doinuari dagokionez, bitxikeri bat gertatzen da, alegia, tonu batean hasten da eta beste desberdin batean amaitu.

Hauxe dugu doinua:

The musical score is written in a single treble clef staff with a key signature of two flats (Bb and Eb). The time signature is 2/4. The melody consists of four lines of music. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables that span across notes. The lyrics are: "Ne-re mai - tte - a lo ta lo da - go bi-ok e - giñ - go de - gu lo bi-ok e - giñ - go de - gu lo e - ta o-raiñ zuk e - ta nik ge - ro lo - o". The score ends with a double bar line.

Ne - re mai - tte - a lo ta lo da - go bi-ok

4  
e - giñ - go de - gu lo bi-ok e - giñ - go

8  
de - gu lo e - ta o-raiñ zuk e - ta nik ge -

12  
ro lo - o



## NERE MAITTE POLITTA

Kanta hau ere Prantxika Aierdik kantatua da:

Nere maitte politta  
Donostian dago  
Biar etorriko da  
Jangoikoak nai bado  
Jangoikoak nai bado ta  
Modurikan bado  
Artoari utzita  
Ogia jango do.

Prantxikak “badu” eta “du” errimak erabiltzen ditu “bado” eta “do”-ren ordean. Baina nik nahiago izan dut goian erabili dudana forma erabiltzea; alde batetik, “dago” errima daukagu eta ez digu “du” formarekin errimatzen, eta, bestetik, Ataungo euskalkian erabili ohi dugun “do” formak, egokia izateaz gain errimatu egiten du.

Hona hemen doinua:

The image shows two staves of musical notation in G major (one sharp) and 2/4 time. The first staff contains the melody for the first line of lyrics: "Ne-re mai - tte po - li - tta Do-nos - ti - an da - go bi - ar". The second staff starts with a measure rest marked '5' and continues with the melody for the second line of lyrics: "e - to - rri - ko da Jaun - goi - koak nai ba - do".



# **HAUR KANTAK**



## AITONA KASKA ZURI

Kanta hau Joanito Dorronsorok (B. D., 755 or.) Ataun San Gregorion jasoa da.

Honela jaso du Joanitok:



A musical staff in G major (one flat) and 2/4 time. The melody consists of quarter and eighth notes. The lyrics are: Ai - to - na kas - ka - zu - ri o - lla - ki ja - le - a ez

5



A musical staff in G major (one flat) and 2/4 time, starting with a measure rest. The melody consists of quarter and eighth notes. The lyrics are: dek a - rra - pa - tu - ko ne - re o - llan - de - a

Hauek dira hitzak:

Aitona kaskazuri oillaki jalea  
Ez dek arrapatuko nere ollandea



## ARRE ARRE MANDAKO

Kanta honek aldaera asko ditu Ataunen eta Prantxika Aierdi eta bion artean egindako moldaketa edo osaketa da lan honetarako jaso dudana.

Hauetxek hitzak:

Arre arre mandako  
Biar Tolosarako  
Etzi Iruñarako  
Andik zer ekarriko  
Zapata ta gerriko  
Ze kolore?  
Txuri ta gorri  
Ze prezio?  
Errelbi t'erdi  
Aak zeñientzako?  
(Izena)-rentzako.

Eta hauxe bere doinua:

A - rre a - rre man - da - ko bi - ar To - lo - sa - ra - ko

5 e - tzi I - ru - ña - ra - ko an - dik zer e - ka - rri - ko

9 za - pa - ta ta ge - rri - ko ze ko - lo - re txu - ri ta go - rri ze pre -

13 zi - o e - rre lbi ter - di ak ze - ñen - tza - ko (i - ze - na - ren - tza -

17 ko)



*Argazkia: Martin Arruabarrena*

## DON DON KIKILIKON

Beti esan da kanta hauei “haur kantak” deitu beharrean, “haurrentzako kantak” deitu behar litzaiekeela. Izan ere, haurrak ez daki kantatzen eta gurasoek hurrekin jolas egiteko asmatuak izan dira.

Eta zer adibide hoberik kanta hau baino!

Hurrei kantatu ez balitzaie, kanta honek “taberna giroko” kanten zerrendan egon beharko zukeen. Izan ere, kanta hau sortu zuena haurrarekin jolasean bai, baina, txurritarekin ametsetan ere ari zen nonbait.

Julian Munduatek kantatu zidan eta honela dio:

Don don kikilikon  
Saltopiko tortoliko  
Tente gulente  
Barrika de aguardiente  
Kopatxo bat baneuke  
Edango nuke.

Eta hauxe da dagokion pentagrama:

Don don ki-ki-li-kon sal-to pi-ko tor-to-li-ko

ten - te gu - len - te ba - rri - ka dea - guar - dien - te ko -


pa - txo bat ba - neu - ke e - dan - go neu - ke



## ILLARGI AMANDREA

Kanta hau Joanito Dorronsorok (B. D., 841 or.) Ataun San Gregorion jasoa da.

Honela jaso du Joanitok:



The image shows two staves of musical notation in G major and 2/4 time. The first staff contains the melody for the first line of the song, with lyrics underneath. The second staff starts with a measure rest marked '5' and continues the melody for the second line of the song.

I - llar - gi a - man - dre - a ze - ru - an zer be - rri ze -  
ru - an be - rri o - nak o - raiñ e - ta be - ti

Hauek dira hitzak:

Illargi amandrea zeruan zer berri

Zeruan berri onak oraiñ eta beti



## TTURRUKUTTUKUTTONA

Kanta hau Prantxika Aierdik kantatu zidan:

Tturrukuttukuttona  
Mailluaren otsa  
Ederki dantzatzen da  
Gure neska motxa.



*Argazkia: Martin Arruabarrena*



## TXALO TXALOTXIÑ

Haur kanta honek bariante ugari du Ataunen. Eta bat aukeratzekoan, neuk gogoratzen dudana aukeratu dut, batik bat osoenen artean dagoelako.

Honela dio kantak:

Txalo, txalo Txalotxiñ  
Ator etxera Matxiñ  
Txalo dago adarrean  
Bere aulkitxo nabarrean  
Txalotxiñen ballesta  
Matxiñ agiri ezta.

Eta hauxe bere doinua:

Txa - lo txa - lo txa - lo - txiñ a - tor e - txe - ra Ma -

4  
txiñ txa - lo da - goa - da - rre - an be - reaul - ki - txo na - ba - rre -

8  
an txa - lo - txi - ñen bai - ez - ta Ma - txiñ a - gi - ri ez -

12  
ta



## ZANKO MANKO

Kanta hau Felix Eskisabelek kantatu zidan.

Honela dio kantak:

Zanko manko berrie pranko  
Ona bazera etxerako  
Txarra bazera kanporako

Huxe bere doinua:

The musical score is written in a single system with three staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 2/4 time signature. The melody consists of quarter notes and eighth notes, with two triplet markings (indicated by a '3' above the notes) over the words 'pran - ko' and 'o - na'. The second staff continues the melody, also featuring triplet markings over 'ko txa - rra' and 'ze - ra'. The third staff concludes the piece with a final note and a double bar line, with the word 'ra - ko' underneath.

Zan - ko man - ko be - rri - e pran - ko o - na ba -  
ze - ra e - txe - ra - ko txa - rra ba - ze - ra kan - po -  
ra - ko



**JOLAS KANTAK**



## ALA KIÑKIRRIÑERA

Kanta hau ere Julian Munduatek kantatu zidan:

Ala kiñkirriñera  
Ala xamurrera  
Maria Etxeberrikoa  
Jira beste aldera.

Doinu hau erabili zuen:

The image shows two staves of musical notation in G major (one sharp) and 2/4 time. The first staff starts with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). It contains a triplet of eighth notes (A4, B4, C5) followed by a quarter note (D5), then another triplet of eighth notes (E5, F#5, G5) followed by a quarter note (A5). The lyrics 'A - la kiñ-ki-rrí - ñe - ra a - la xa - mu - rre - ra' are written below the notes. The second staff starts with a treble clef and a key signature of one sharp. It contains a triplet of eighth notes (A4, B4, C5) followed by a quarter note (D5), then another triplet of eighth notes (E5, F#5, G5) followed by a quarter note (A5). The lyrics 'Ma - ri - a e - txe - be - rri - koa jí - ra bes - teal - de - ra' are written below the notes.



Argazkia: Santi Etxeberria



## AMONA GORRI

Amona gorri edo amona mantal gorri, eguraldia iragartzeko erabiltzen zuten neska-mutilek. Xomorro gorri hori behatz puntan hartu eta kantatzen zitzaion bitartean hegaka aldegiten bazuen, hurrengo egunean eguzkia seguru izango zen, aldiz, bertan geratzen bazen, euria egingo zuela esan nahi zuen.

Bertsio eta aldaera ugari ditugu kanta honekin ere. Guk mutikotan honako hau erabiltzen genuen:

Amona gorri  
Gona gorri  
Biar euzki ala ebi.

Doinu hau erabiltzen genuen:



*Argazkia: Santi Etxeberria*



## EMEN ALA EMEN

Hau ere asmakizun kanta da.

Hemen tortoloxa (taba) edo kanika erabiltzen zuten neska-mutilek. Bi eskuetako batean hartu eta kanta hau “Dona dona” egiten dugun antzera eginez, non zegoen asmatzen saiatzen ziren.

Hauxe da kanta:

Emen ala emen  
Gure Jaungoikoak  
Ementxe.



*Argazkia: Santi Etxeberria*

Doinu hau erabili zuen Julian Munduatek:

E - men a - la e - men gu - re Jaun - goi - ko - ak

5  
e - men - txe



## IZKUTAKETAN

Kanta hau “izkutaketa”, “harrapaketa”, “poteketa”, etab. jolasetarako erabiltzen genuen. Norbait “izkutaketan eitteko” esaten bazuen, besteak berehala hasiko ziren “eskubiako”, “ezkerreako”, “eskubin hurrungoako” etab. erantzuten. “Eitteko” esaten zuenari zegokion kantatzea eta kantaren azken hitza “tan” tokatzen zitzaiona libre geratzen zen. Denak atera arte errepikatzen zen kanta eta “tan” hitza tokatu ez zitzaion neska-mutil hura geratzen zen beste guztiak aurkitzeko edo harrapatzeko. Esan behar da “Eitteko” esaten zuena, nahiz eta berak ere beste guztiak bezalaxe parte hartu kantarekin, inoiz ez zela geratzen bilatzeko edo harrapatzeko.

Hauxe dugu kanta:

Izkutaketan berriketan  
Zarie zertan  
Amalau erregaletan  
Orra bada bertan.



*Argazkia: Santi Etxeberria*

Eta doinua:

Iz - ku - ta - ke - tan be - rri - ke - tan za - ri - e zer - tan

a - ma - lau e - rre - ga - le - tan o - rra ba - da ber - tan

## PIÑ PIÑ SERAPIÑ

Jolas kanta hau gaur egun ezagunagoa dugun “Dona dona katona” asmakizun kantaren antzekoa da.

Jatorriz, kanta hau zela medio, jolasean zebiltzen neska-mutilek beren esku-itxiak (ukabilak) bata bestearen gainean jarri eta “Dona dona” bezela egiten zuten ukabil bakoitza markatuz. Kantaren azken hitza zegokion ukabilaren jabeari zera galdetzen zitzaion “koxkea ala moxkea?”. “Koxkea” esku bateko behatz haundia eta beste behatz batez baliatuz ematen den kolpetxoa da eta “moxkea”, berriz, txitximur gitea.

Honako hau da Julian Munduatek kantatu zidan bertsoia:

Piñ piñ Serapiñ  
Kameleku pena  
Txurru txurrutena  
Salba salba kox  
Aittona kaskamotx  
Krixkitiñ kraxka  
Kaxkamelon

Hauxe da bere doinua:

Musical score for the song "Piñ piñ Serapiñ". The score is written in 2/4 time and consists of four lines of music. The lyrics are written below the notes.

1 Piñ piñ Se - ra - piñ ka - me - lu - ku pe - na

5 txu - rru txu - rru - te - na sal - ba sal - ba kox ai -


9 tto - na kax - ka - motx kris - ki - tiñ kras - ka

13 Kas - ka - me - lon

Interesgarria iruditzen zait guk mutikotan erabiltzen genuen beste bertsio edo bariante hau ere:

Piñ piñ Serapiñ  
Kameluko erakiñ  
Txurru txurrutena  
Salba salba kox  
Aittona kaskamotx  
Pipa motx

Doinu honetan kantatzen genuen:



The musical score is written on three staves in a 2/4 time signature with a key signature of two flats (B-flat and E-flat). The melody is simple and consists of quarter and eighth notes. The lyrics are written below the notes.

Piñ piñ Se - ra - piñ ka - me - lu - ko e - ra - kiñ

5  
txu - rru txu - rru - te - na sal - ba sal - ba kox ai -

9  
tto - na kax - ka - motx pi - pa motx



Argazkia: Santi Etxeberria

## ZUBIRI ZUBIRI

Jolas kanta hau , oraindik orain ere ikastolako neskatilen ahotsetan entzun dezakegu. Jolaskide guztiek kanta hau kantatzen zuten bitartean, bi neska zubi itxuran jartzen ziren elkarri eskuak emanda. Gai nontzeko guztiak, bata bestearen sorbaldan eskuak jarriaz, zubiaren azpitik pasatu behar zuten. Kanta amaitzean, zubiaren azpian zegoena harrapatuta geratzen zen eta elementuen (kolore, fruitu, zapore...) artean aukera egin ondoren zubia osatzen zuten neskatiletako baten atzean jartzen zen.

Denak amaitzean “soka-apustua”(ikus Pili Arinen “Ataungo Jolas Tradizionalak”, 44-45 or.) egiten zuten.

Hauxe kantatzen zuten:

Zubiri zubiri  
Nungori Nungori  
Nungo alkate zerade  
Probintziako errege baten  
Seme alabak gerade  
Urrun urruna  
Zubi ontatik  
Pasatzen dana  
Emen geldittuko dala  
Emen geldittuko dala.



*Argazkia: Santi Etxeberria*

Hauxe da bere doinua:

Zu-bi-ri zu-bi-ri nu-go-ri nun-go-ri nun - goal-ka - te ze - ra -  
de pro-bin-tzi - a - ko e-rre-ge ba - ten se-me a - la - bak ge - ra -  
de u-rrun u - rru - na zu-bi on - ta - tik pa-sa-tzen da - na e-mengel -  
di - ttu-ko da - la e-mengel - di - ttu-ko da - la



Argazkia: Santi Etxeberria



# **TABERNA GIROKO KANTAK**

## AFALDURIKAN BAPO BAPO

Gure koadrilakoak lagunarteko otordu ondoren kantatu ohi genuen kanta hau. Pentsatzen dut ez zela Ataunen bakarrik kantatuko, baina, egia esan, eskuartean erabili dudan materialen artean ez dut kanta honen antzekorik aurkitu, beraz, bidezkoa iruditzen zait hau ere gure kanta zaharren artean egotea.

Honela dio kantak:

Afaldurikan<sup>7</sup> bapo bapo  
Goazen bai plazara  
Antxen egiñgo degu  
Gogotik algara (BIS)

Oraindikan lagunak  
Tragotxo bat bota  
Bota bota beste bat  
Oraindikan bota

Tragoarekiñ zaigu zaigu  
Barrena pizkortu  
Etzan gizon makala  
Au zuena sortu (BIS)



*Argazkia: Martin Arruabarrena*



*Argazkia: Martin Arruabarrena*

<sup>7</sup> Bazkalondoan izanez gero "Bazkaldurikan" kantatuko dugu

Eta doinua:

A-fal-du - ri - kan ba - po ba - po goa-zen bai pla - za -  
4 ra antxen e-giñ - go de-gu go-go-tik al - ga -  
8 ra a-fal-du - ra O-raiñ-di-kan la - gu-nak  
12 tra-go-txo bat bo - ta bo - ta bo - ta bes - te bat  
16 o-raiñ-di-kan bo - ta Tra-go - a - re - kiñ zai - gu  
20 zai-gu ba-rre-na piz - kor - tu e-tzan gi-zon ma -  
24 ka-la au zu - e - na sor - tu tra-go - a - tu



## ATSO ZARRAREN ATORRA ZARRA

Azkuek (C.P.V. 156-157 or. I tomoa) dionez, kanta hau Ataunen Nikolas Zubizarretaren ahotik jaso omen zuen.

Doinu aldetik oso kanta interesgarria den arren, ezin dugu gauza bera esan osatzen duen hitzari buruz. Traketsa, zakarra, matxista porrokatuak dira kanta honetan erabiltzen diren hitzak. Baina, guk garaian garaikotzat hartu eta dagoena dagoenean erabili besterik ez dugu egingo. Norberak jakingo du kanta honi zein erabilpen eman.

Hala ere, Azkuek kanta honen aldaera bat aipatzean, senar-emazteen arteko hika-mikatzat hartu beharreko kanta dela adierazten du. Hura giroa izango zutena etxe hartan!

Hauetxek dituzue hitz “goxo” hauek:

Atso zarraren atorra zarra  
Berea balu ezer ez (BIS)  
Kedarra baiño beltzagoa du  
Garbitutzeko alperrez (BIS)

Txiruriñ briñkuliñ briñkuliñ briñkuliñ  
Txiruriñ briñkuliñ atsoa (BIS)  
Su bazterrean dagoenean  
Ez dauka mozkorra gaiztoa (BIS)

Atso zarra belendriñ  
Ire azkenak egin diñ (BIS)  
Ortzak ere joan zaizkiñ eta  
Deabru zarra dirudiñ (BIS)

Txiruriñ briñkuliñ briñkuliñ briñkuliñ  
Txiruriñ briñkuliñ atsoa (BIS)  
Su bazterrean dagoenean  
Ez dauka mozkorra gaiztoa (BIS)

Gure atsoa gau ta egun  
Ez du besterik zer egiñ (BIS)  
Arkakusoak arrapatuta  
Atzealdeari<sup>8</sup> atz egin (BIS)

Txiruriñ briñkuliñ briñkuliñ briñkuliñ  
Txiruriñ briñkuliñ atsoa (BIS)  
Su bazterrean dagoenean  
Ez dauka mozkorra gaiztoa (BIS)

<sup>8</sup> "Atzealdeari" ordez "ipurdiari" erabili omen zuen kantariak

Eta hauxe dugu doinua:

A-tso za-rra-ren a-to-rra za - rra be - re - a ba-lu e - zer-

ez a-tso za-rra-ren a-to-rra za - rra be - re - a ba-lu e - zer

ez ke-da - rra ba-ño bel - tza - go - a du gar-bi - tu-tze-ko al - pe -

rez ke-da - rra ba-ño bel - tza - go - a du gar - bi - tu-tze-ko al - pe -

rez Txi-ru-riñ briñku-liñbrinku-liñ - briñku-liñ txi-ru-riñ briñku-liñ a - tso-

a Txi-ru-riñ Briñku-liñ a - tso - a Su baz-te - rre - an da-go - e -

ne - an-ez dau-ka mozko-rra gaiz - to - a su baz-te - rre - an da-go - e -

ne - an ez dau-ka mozko-rra gaiz - to a

*Fine*



A - tso za - rra be - len-driñ i - re az - ke - nak e - giñ  
 Gu - rea - tso - ak gau tac - gun ez du bes - te - rik zer e -



diñ A - tso za - rra be - len-driñ i - re az - ke - nak e - giñ  
 giñ Gu - rea - tso - ak gau tac - gun ez du bes - te - rik zer e -



diñ Or - tzak e - re fal - ta zaiz - kiñ e - ta de - a - bru za - rra di - ru -  
 giñ Ar - ka - ku - xo - ak a - rra - pa - tu - ta a - tzeal - de - a - ri atz e -



diñ Or - tzak e - re fal - ta zaiz - kiñ e - ta de - a - bru za - rra di - ru -  
 giñ Ar - ka - ku - xo - ak a - rra - pa - tu - ta a - tzeal - de - a - ri atz e -



S-ra bi aldiz eta Fine

diñ Txi - ru - riñ  
 giñ Txi - ru - riñ



Argazkia: Martin Arruabarrena



**EZTEI GIROKO  
KANTAK**

## SANTA LUZIETAN

Azkueren (C.P.V. , 604 or., I tomoa) bildumatik atera dut kanta hau. Berak “Epitalamio” edo ezteietako kantuen zerrendan sailkatua du eta nik ere horrela jarriko dut, nahiz eta Azkuek jasotako bi bertso hauek jai girokoen itxura izan. Azkuek dio Ataunen jaso zuela eta honela kantatu omen zioten

- 1 Santa Luzietan gaua da luze  
San Bernabetan eguna  
Norbera ongi dagoen orrek  
Ezta erruki laguna
- 2 Jose Abustin nere biotza  
Gauza bat adi zazu  
Beti orrela ibiltzen ere  
Neke aundia daukazu

Baina bertso hauek lauko nagusian egonik, doinuari dagokionez motz geratzen dira eta Azkuek (konturatu gabe bizkaieraz) honela<sup>9</sup> egokitu zituen:

- 1 Santa Luzietan gaua da luze  
San Bernabetan degu eguna  
Aukera betean bizi dan orrek  
Ezta ez erruki bere laguna
- 2 Azaro egunetan ogia gogor  
Eztei egunetan degu biguiña  
Senartxorik gabe bizi dan orrek  
udan ikusten du negu illuna

Anbrosio de Zaratainek kanta honi buruz egiten duen komentarioan dionez, gauik luzeena Santa Luzia (Abenduaren 13) eta egunik luzeena San Bernabe (Ekainaren 11) esateak egutegi gregoria-noaren aurreko garaietara garamatza, egutegi honen eraberritzea 1582-ko Urriaren 4-tik 15-era bitartean eman zelarik.

---

<sup>9</sup> Nik gipuzkeraz jarri dut

Hauxe dugu kanta honen doinua:

San - ta Lu - zi - e - tan gau - a da lu -

4

ze San Ber - na - be - e - tan de - gu e - gu -

8

na au - ke - ra be - te - an bi - zi dan o -

12

rrek ez - tu ez e - rru - ki be - re la - gu -

16

na



# **ERROMANTZEZKO KANTAK**



## ASTOA ETA OTSOA

Ipuin liriko hau Felix Eskisabelek kantatu zidan.

Lehenik berak kantatuta bezala idatzita aurkituko dugu hemen. Kanta hau, doinuari dagokionean, batzutan luzeegi eta bestetan motzegi geratzen denez, doinuari egokitutako moldaketa egitea bururatu zitzaidan eta, beraz, azpian (Felixen baimenarekin) zortziko klasikora moldatutako bertsioa aurkituko dugu, egoki kantatu ahal izateko.

Honela kantatu zidan Felixek:

- |   |   |
|---|---|
| 1- Agur agur Otsako<br>Ongi etorri aizela Astako<br>Deskuidon egarri baliñ baago<br>Bazekarreat naiko erari<br>Tralala tralala tralala tralala<br>Bazekarreat naiko erari         | 2- Ez nok ez nok egarri<br>Baizik goseak natxok larri<br>Gaur gauerako afari<br>Bear zetuak ire buru belarri<br>Tralala tralala tralala tralala<br>Bear zetuak ire buru belarri |
| 3- Or goien zeok artalde<br>Zakurrik ere ez dute<br>Auntza aurrena juten danantzako<br>Zikirio pare bat badaude<br>Tralala tralala tralala tralala<br>Zikirio pare bat badaude    | 4- Oñean zeukeat arantza<br>Nik eziñ briñka arantza<br>I emen aukeala<br>Zertako joango neok arantza<br>Tralala tralala tralala tralala<br>Zertako joango neok arantza          |
| 5- Or goien zeok ermitta<br>San Bartolome deritza<br>Gero jango banok ere<br>Entzun bear diagu meza<br>Tralala tralala tralala tralala<br>Entzun bear diagu meza                  | 6- Otso zarra gazie<br>Gaztetan gaizki ezie<br>Biar jango banok ere<br>Badiat gaurko bizie<br>Tralala tralala tralala tralala<br>Badiat gaurko bizie                            |
| 7- Asto zarra mukizu<br>Maleziak ere baittuzu<br>Nik urruna arrapatzen zaittuan tokian<br>Mezarik entzungo ez dezu<br>Tralala tralala tralala tralala<br>Mezarik entzungo ez dezu |   |

Hauxe da neuk moldatutako bertsoia:

- 1- Agur agur Otsako  
Ongi etorri Astako  
Deskuidon egarri baago  
Bazeukeat erari naiko  
Tralala tralala tralala tralala  
Bazeukeat erari naiko
- 2- Ez nok ez nok egarri  
Baizik goseak natxok larri  
Gaur gauerako afari  
Ire buru ta belarri  
Tralala tralala tralala tralala  
Ire buru ta belarri
- 3- Or goien zeok artalde  
Zakurrik ere ez dute  
Aurrena juten danantzat  
Zikirio pare'at badaude  
Tralala tralala tralala tralala  
Zikirio pare'at badaude
- 4- Oiñean zeukeat arantza  
Nik eziñ briñka aruntza  
I emen aukeadala  
Zertako joan aruntza  
Tralala tralala tralala tralala  
Zertako joan aruntza
- 5- Or goien zeok ermitta  
San Bartolome deritza  
Gero jango banok ere  
Entzun bear diagu meza  
Tralala tralala tralala tralala  
Entzun bear diagu meza
- 6- Otso zarra gazie  
Gaztetan gaizki ezie  
Biar jango banok ere  
Badiat gaurko bizie  
Tralala tralala tralala tralala  
Badiat gaurko bizie
- 7- Asto zarra mukizu  
Maleziak ere baittuzu  
Urruna arrapautakoan  
Mezarik entzungo ez dezu  
Tralala tralala tralala tralala  
Mezarik entzungo ez dezu

Doinu honetan kantatu zidan Felixek:

A - gur a - gur o - tsa - ko on - gi e -  
3 to - rri as - ta - ko des - kui - don e - ga - rri baa -  
6 go ba - zeu - keat e - ra - ri nai - ko tra - la - la  
9 tra - la - la tra - la - la tra - la - la ba - zeu - keat e - ra - ri nai -  
12 ko



# **KANTA NARRATIBOAK**



## ALDARRETA GARAKO

Kanta hau Julian Munduatek kantatu zidan:

Aldarreta garako  
Maria Juana  
Etzera damutuko  
Peria joana  
Peria joana eta  
Ontziak erosi  
Bidean datorrela  
Erorita (i) ausi

Doinu honetan kantatu zidan:

Al - darreta ga - ra - ko Ma - ri - a Jo - a - na

5  
e - tze-ra da - mu - tu - ko pe - ri - a jo - a - na

9  
pe - ri - a jo - an e - ta pla - te - rak e - ro - si


13  
bi - de-an da - to - rre - la e - ro - ri - ta(i) au - si

## **EPISTOLEA**


Kanta hau Joxe Arratibelen “Kontu zaharrak” (194-195 or.) liburutik jaso dut, eta bertan dionez, ergoneko Saltse baserrian Felipe Arratibeli entzun omen zion honako umorezko kanta bitxi hau:

Letzion de Epistolea tipolea apostolea  
Letzion de koskolo  
Ezagutzen zenduen Amuñaiño Martolo  
Gaztai puska batekiñ amar talo jateko  
Alako motillik ez dago  
Ezagutzen zenduen Amuñaiño Martiña  
Oillaskoak kapatzen zekiña  
Joan nintzen Dorraua ta eosi nuen beia  
Ua ere argala neoni bezela  
Ezagutzen zenduen  
Dorrauko perratzaillea  
Artzeko guztien kobratzaillea  
Zor guztien ukatzaillea  
Kristum Dominum Nostrum


Hauxe dugu doinua:




Letzion de epistolea tipolea apostolea letzion de kos-ko- lo




Ezagutzen zenduen Amuñaiño Martolo,  
gaztai puska batekiñ amar talo jateko alako moti-llik ez da - go



Ezagutzen zenduen Amuñaiño Martiña ollaskoak kapa - tzen ze - ki - ña



Joan nitzen Dorraua ta eosi nuen beia ua ere argala neo - ni be - ze - la



Ezagutzen zenduen Dorraoko perratzallea artzeko guztien kobratzallea  
zor guztien ukatzallea



Kris-tum Do - mi-num nos - trum



## ZALDIBIKO PLAZAN

Kanta hau Joanito Dorronsorok (B. D., 2241 or.) Ataunen jaso da. Dantzako doinu ezaguna dugu kanta hau.

Honela jaso du Joanitok:



Zal - di - bi - ko pla - zan    i - ru a - tso dan - tzan    i - ru - rak    ereez dau - ka - te

4



xen - ti - mo - rik pol - tsan    la    ra    la    la    ran    la    ra    la    ra    la

7



la    ra    la    la    ran    la    ra    la    ra

Hauek dira hitzak:

Zaldibiko plazan iru atso dantzan  
Irurak ere ez daukate xentimorik poltsan  
La-ra-la la-ran-la-ra-ra la-ra  
La-ra-la la-ran-la-ra la-ra



*Argazkia: Martin Arruabarrena*



# **ERESIAZKO KANTAK**

## NESKAME SORGIÑE

Hau ere Joxe Arratibelen “Kontu zaharrak” (187-188 or.) liburutik jasotakoa da. Artzateko gizona sorooan arbi zuritzen ari zela, norbait kantari ari zitzaiola somatu omen zuen:

Aittona buru txuri  
Esaiozu Xarpaxarri  
Il dala Xirrimirri  
Datorrela xarri xarri


Gizona etxera joan zenean sorooan entzundakoa kontatu omen zien eta hitz haiek entzutean neskameak ziztu bizian aldegin omen zuen.

Doinuari dagokionez, horrela idatzi du Joxe Arratibelek:



The image shows two lines of musical notation in G major (one sharp). The first line contains the notes A4, B4, C5, D5, E5, D5, C5, B4, A4. The second line contains the notes A4, B4, C5, D5, E5, D5, C5, B4, A4. The lyrics are: Ai-to-na bu-ru txu - ri e-sai-o-zu Xar-pa-xa - rri

Baina azken konpasean belarrietarako behinik behin egokiagoa iruditzen zait “LA” nota, “SOL” borobila baino:



The image shows a single line of musical notation in G major (one sharp). The notes are A4, B4, C5, D5, E5, D5, C5, B4, A4. The lyrics are: da - to - rre-la xa - rri xa - rri

Beraz aldaketa txiki hori egin ondoren, honako interpretazio hau izango luke goian idatzi dugun doinuak:

Ai - to - na bu - ru txu - ri e - sai-o-zuXar - pa -

4  
xa - rri il da - la Xi - rri - mi - rri da - to-rre-la xa - rri

8  
xa - rri



# **ALEGIAZKO KANTAK**

## LENAGOKO GIZONAK OGIA NOLA IRABAZI ZUEN

Isidro Baztarrikak “Jaunaren Deia” (78 or.) liburuxkan argitaratu zuen kanta hau. Bertan dionez, Felipe Baztarrika Gasteizen bizi zen 80 urteko Ataundarraren ahotik jaso zuen txikitan amarengatik ikasi zuen kanta hau:

Ama, ekatzu papa.  
Apaizak du giltza.  
Joan nintzen apizagana,  
Emateko giltza.  
Apaizak esan zidan  
Emateko arrautza.

Joan nintzen oilloagana,  
Emateko arrautza.  
Oilloak esan zidan  
Emateko garia.

Joan nintzen soroagana,  
Emateko garia.  
Soroak esan zidan  
Emateko ongarria.

Joan nintzen mandoagana,  
Emateko ongarria.  
Mandoak esan zidan  
Emateko belarra.

Joan nintzen mendiagana,  
Emateko belarra.  
Mendiak esan zidan  
Emateko segea.

Joan nintzen frantsesagana,  
Emateko segea.  
Frantsesak esan zidan  
Emateko urdaia.

Joan nintzen txerriagana,  
Emateko urdaia.  
Txerriak esan zidan  
Emateko ezkurra.

Joan nintzen aritzagana,  
Emateko ezkurra.  
Aritzak esan zidan  
Emateko aizea.

Joan nintzen itsasoagana,  
Emateko aizea.

... ..

Itxasoak aizea neri,  
Nik aritzari.  
Aritzak ezkurra neri,  
Nik txerriari.  
Txerriak urdaia neri,  
Nik frantsesari.  
Frantsesak segea neri,  
Nik mendiari.  
Mendiak belarra neri,  
Nik mandoari.  
Mandoak ongarria neri,  
Nik soroari.  
Soroak garia neri,  
Nik oilloari.  
Oilloak arrautza neri,  
Nik apaizari.  
Apaizak giltza neri,  
Nik amari.  
Amak papa neri.

Hitzak jasota baditugu ere,  
ezin dugu gauza bera esan doinuari buruz. Gaur egun Isidro eta Felipe ez ditugu gure artean, eta ez dakigu non aurkitu kanta honi dagokion doinua.

Norbaitek argibideren bat emateko esperantzan, oraingoz, bere horretan utziko dugu.



*Arbeldiko sendiak utzitako argazkia*



**AMAIERA**



Liburu honetan jaso ditudan kantak, bat edo beste izan ezik, erabat galduak ditugu erabilerari dagokionean.

Arrazoi bat baino gehiago badenarren, nire ustez industriaren etorrerak du zerikusirik handiena. Industriaren etorrerarekin baserrietako elkarguneak (artazuriketa, garijotze eta mota guztietako auzolanak) piskana piskana galtzen joan dira, gaur egun erabat desagertu direlarik. Elkargune haue-  
tan sortzen zen giro atseginak bultzatzen zituen kantatzera. Eta gune hauek desagertzen joan diren heinean, kantatzeko joera ere desagertzen joan da.

Bestalde, maixu-maixtra, mediku, sekretario, albaittari, agintari etab., gehienak erdaldunak (eus-kaldun baziren ere hizkuntza kultotzat erdara zutenak), gure ondare eta ohituren aurkako elementu klabeak bilakatu ziren, salbuespenak salbuespen. Beste horrenbeste esan genezake egunkari, irrati, telebista etab.en eraginaz.

Bestela, nola uler daiteke duela berrogeita hamar bat urte erdaraz tutik ez zekien amona batek bere bilobei " A lo lo (sic) mi niño, A lo lo mi sol; A lo lo cachito de mi corazón" kantatzea geuk hainbeste eta hain sehaska kanta ederrak izanda ?

Alegia, beste kultura bat joan zaigu piskana piskana inposatzen.

Kultura munduko zenbait pertsonak kultura mestizatuaren onurak aho betez goraiatzen dituenaren, nik esango nuke gure ondarea galtzera ekarri duen kultur mota horrek onura baino kalte gehi-  
ago egin diola gure kulturari.

Bestalde, eta eske kantei dagokionean, kantak galtzeaz gain usadioa ere galdu edo, nolabait esa-  
teko, goitik beherako birmoldaketa izan du.

Duela gutxi arte adin bereko lagun taldeak (gaztetxoak, gazteak eta ez hain gazteak) mendez mende, urtez urte, hutsik egin gabe ibili ohi ziren usadioari jarraituz.

Pentsatzekoa da, garai batean, usadio hau BEHARRAK (goseak) eragingo zuela gero usadio bilakatu bazen ere. Kontuan izan behar dugu garai hartan olata, arrautza, urdai, lukainka etab. ematen zietela eskean kantari zebiltzanei.

Urteak joan ahala, garai hartako BEHARRA desagertzen joan den heinean, usadio bilakatu dira urteko egun jakin horiek. Eske kantariei ematen zitzaien saria ere aldatuz joan da; janariaren orde-  
z dirua izango zen ordainsaria.

Gerora beste BEHAR batzu joan zaizkigu sortzen: Ikastola, Presoak etb.

Hirurogeigarren hamarkadan, usadioa guztiz birmoldatuz, Ikastolen mugimenduari laguntzeko joera nabarmendu zen. Ondorioz, koadrilaka ibiltzeari utzi eta adin desberdinetako jende multzoz osatutako taldeak ibiliko dira eskean.

Usadio honen birmoldaketak badu beste eragin bat ere: usadioz kantatu ohi ziren kantak alde batera utzi eta beste herrietako kantak gureganatzea.

Eskean gabiltzala sarritan entzun behar izan dugu orain kantatzen direnak ez direla gure kantak, eta ea ez ote dagoen lehengoak berreskuratzerik.

Horixe da, kanto, liburu honen mamiak sortu behar digun bihotzeko harra.



## BIBLIOGRAFIA

ANSORENA, Jose Inazio. Euskal Kantak, EREIN, DONOSTIA, 1993

ARIN, Pili. Ataungo Jolas Tradizionalak, Antropologiaren Euskal Bilduma, Barandiaran Joxemiel, HARAMBURU EDITOREA S.A., DONOSTIA, 1985.

ARRATIBEL, Joxe. Kontu Zaharrak, EDITORIAL LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA, BILBO 1980.

AZKUE, Resurrección M<sup>a</sup> de. Cancionero Popular Vasco, BIBLIOTECA DE LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA, BILBO, 1968

BAZTARRIKA, Isidro. Jaunaren Deia, 74-77, BENEDIKTARRAK, LAZKAO, 1981

BAZTARRIKA, Isidro. Jaunaren Deia, 78, BENEDIKTARRAK, LAZKAO, 1982

DORRONSORO, Joanito. Bertso Doinutegia, EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA, DONOSTIA, 1995

KRISKITIN. Gabon Kantak, SEMINARIO DIOCESANO, DONOSTIA, 1956

LEKUONA, Manuel. EGAN literatur aldizkaria, DONOSTIA, 1956

## NIRE BERRIEMAILEAK

Liburu hau gure esku artean izatea posible egin duzuen guzti guztioi eskerrik beroena eman nahi dizuet. Atal honetan gutxi batzuen izenak besterik ez ditut aipatzen, lan honetan zehar azaltzen diren berriemaileenak soilik, hain zuzen ere. Baina, arrazoi batengatik edo bestengatik, liburu honetan laguntzaile guztiak aipatzea ezinezko gertatu bazait ere, ezin zaituztet ahaztuta utzi hainbat eta hainbat datu eta informazio eman didazuen lagun eta laguntzaile leialok. MILA ESKER guzti guztioi.

AGIRRE BEGIRISTAIN, Pedro. 1935-2-27an Ataungo Aiako Mendiurkillo baserrian jaio eta bertan bizi da. Donostiako Seminarioan filosofia ikasi zuen eta geroztik Beasaingo GERRA Hnos. lantegian egin du lana.

AIERDI GOIKOETXEA, Pantxika. 1922-5-24ean Ataun San Gregorioko Munduate baserrian jaio eta auzo bereko Etxeberrin bizi izana, gaur egun San Martingo Toki-Eder etxean bizi da. Lanbidez etxekoandrea.

AIZPURUA GAZTELU, Joan. 1955-2-20ean Ataun San Martingo Erremedio baserrian jaioa eta gaur egun Ordizian bizi da. Idiazabalen lehenik eta orain Legazpin BELLOTA lantegian diardu lanean.

ARANA BARANDIARAN, Ixabel. 1928-5-22ean Ataun San Martingo Txominonen jaioa eta auzo bereko Altzanipe etxean bizi da. Lanbidez tabernaria eta etxekoandrea.

ARANBURU SARRIEGI, Patxi. 1961-11-23an Beasain Mendiko Toki-Alai etxean jaioa. Lanbidez tabernaria eta igeltsaria.

ARRATIBEL AGIRRE, Jexux. 1949-12-24ean Ataun San Gregorioko Urbitarten jaio eta gaur egun Beasainen bizi da. Goierriko Lanbide Eskolan ofizialia ikasi zuen eta lehenik Olaberriko SAYNE lantegian eta geroztik Beasaingo CAFen ari da montadore lanetan.

ARRATIBEL AGIRRE, Maria. 1922-8-6ean Ataungo Aiako Joanane baserrian jaio eta auzo bereko Aiarre baserrian bizi da. Lanbidez baserriko etxekoandrea.

ARRATIBEL ARRATIBEL, Patxi. 1945-6-4ean Ataun San Gregorioko Igondo-Barrena baserrian jaio eta auzo bereko Sariarte-Azpikoa baserrian bizi da. Beasaingo CAF lantegiko Lanbide Eskolan ofizialia ikasi zuen eta geroztik lantegi berean montadore lanetan aritu izan da.

ARRATIBEL ZURUTUZA, Iñaki. 1933-7-31an Ataun San Gregorioko Sariarte baserrian jaio eta bertan bizi da. Lanbidez: baserrian eta Lazkaoko Fundiciones Arriaran lantegian egin zuen lana.

BIKUÑA AGIRRE, Joxe. 1935-2-27an Ataun San Martingo Okarizti baserrian jaioa eta auzo bereko Bikuña-Enea etxean bizi da. Beasaingo CAF lantegian egin du lana.

DORRONSORO AGIRRE, Joanito. 1947-10-10ean Ataun San Gregorioko Gomonsoro-Saletxe baserrian jaio eta bertan bizi da. Lehenik Lazkaoko FUNDICIONES ARRIARAN eta gero herri bereko FUNDICIONES CANON lantegian diardu lanean.

ESKISABEL ZURUTUZA, Felix. 1929-11-4ean Ataun San Martingo Espilla baserrian jaio eta bertan dizi da. Lanbidea: baserrian eta hamalau urtez geroztik Beasaingo CAF lantegian egin du lana.

ETXEBERRIA, Gillermo. Asteasun jaioa eta Donostian bizi da. Lanbidea: Orereta Ikastolako irakasle izana, gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu euskara, euskal literatura eta didaktika arloan. EGAN literatur aldizkariko idazkaria da. Bere argitalpenik ezagunenak "Euskal literatura", "Testu azterketa", 1985an eta "Ahozko poesia", 1986an.

GALPARSORO ETXEBERRIA, Miel. 1931-7-5ean Ataun San Gregorioko Sabiaga baserrian jaio eta 2000-2-6ean hila. Lanbidez zapatari eta gero Ataun San Martingo KEREXETA lantegian egin zuen lana.

GARMENDIA JAUREGI, Joxemiel. 1926-4-4ean Itsasondoko Saro baserrian jaio eta Ordizian bizi da. Lanbideak: baso lanean itzai, igeltsari eta eraikitzaile.

GOIKOETXEA TOLOSA, Joxe. 1947-3-6ean Ataun San Gregorioko Armuño baserrian jaio eta bertan bizi da. Beasaingo CAFeko Lanbide Eskolan ofizialia egin zuen eta CAF lantegian txapista lanetan ari da.

MUNDUATE IMAZ, Julian. 1913-9-14ean Ataun San Martingo Arinberri baserrian jaio eta auzo bereko Toki-Eder etxean bizi da. Gaztetan dantzari izana. Lanbideak: baserrian, estankoa, korreotza, zapatari, bizargin eta Olaberriko ARISTRAIN lantegiko goarda.

ZEBERIO BEGIRISTAIN, Joxepa. 42-2-6ean Ataun San Gregorioko Atxurrene baserrian jaio eta auzo bereko Sariarte baserrian bizi da. Lanbidez baserriko etxeoandrea.

ZURUTUZA AIERBE, Nikolas. 1955-5-23an Ataun San Gregorioko Arratiñ baserrian jaio eta bertan bizi da. Beasaingo ESTANDA lantegian egiten du lana.





## ATAUNgo KANTA ZAHARRAK

Kantagintza, herri baten izaeran, bere ohitura, tradizio eta folkloreko elementu garrantzitsuenetako bat eta espresio bide gardenenetakoa da. Ataunen, Euskal Herriko beste herri askotan bezala kantagintzarako joera handia izan da. Nork ez ditu entzun sehaska kantak, haur kantak, jolas kantak, taberna giroko kantak, eske kantak, ... Baina zoritxarrez gero eta gutxiago entzuten dira.

Lan honetan, egileak, Ataunen ezagutu diren kanta zaharren bilduma zabal bat egin du. Helduek denak ezagutuko dituzte, gazteek berriz oso gutxi, baina guztiak Ataungo historian zer esana izan dute. Leku gehienetan galdu diren zenbait abesti Ataunen oraindik, kantatu egiten dira.

Liburu honekin kanta zahar hauek jaso eta berreskuratu nahi izan dira, testu eta pentagramekin. Hain urrutiko ez diren usadio hauek berriro gureganatzea izan daiteke etorkizuneko ume eta belaunaldientzako oparirik onena.



ATAUNgo UDALA